

283. alea - 2023ko apirila  
Debako herri aldizkaria

Zuhaitza www.deba euskara  
elkartea

# Berriketan



OKERKALE IRRATIA

## Kultur Elkarteko ganbaratik lau haizetara



## ASESORIA DEBA

Kontabilitatea- Nominak -  
Aseguruak- Higiezinak

Tel.: 943 192 127  
Fax: 943 192 482

asesoriadeba@asesoriadeba.com  
www.asesoriadeba.com  
Hondartza 2, behea  
20820- DEBA (GIPUZKOA)

# adats

ADATS ILEAPAINDEGIAK DEBA  
Hondartza kalea 13 DEBA  
T. 943 19 27 00

 www.facebook.com/adatsileak  
 @adatsileak



## URDAITEGIA AITTOLA HARATEGIA

Astillero, 3  
Tlfnoa.: 943 191 776  
20820 DEBA

# Urlo

Aholkularitza  
Komunitateen  
kudeaketa  
Inmobiliaria

Tel. 943 192 471 • [urlo@urloasesoria.eus](mailto:urlo@urloasesoria.eus)  
Sokagin, 2 behea. Posta Kutxa 3. 20820 DEBA



Ostolaza, 5  
DEBA  
Tel.: 943 191 197



*Hondartza ondoan  
Urte guztian zabalik*

Nafarroa Plaza • Tel.: 943 192 576  
20820 DEBA



Sukalde eta etxe altzarien  
erakusketa izugarria  
3000m<sup>2</sup>

Itziariko gaina  
T.: 943 19 91 00  
F.: 943 19 91 01

ITZIAR-DEBA (Gipuzkoa)

[endaneta@mueblesendaneta.com](mailto:endaneta@mueblesendaneta.com)  
[www.mueblesendaneta.com](http://www.mueblesendaneta.com)



 Hondartza kalea, 3-4 behea - 31 P.K.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
 Tel.: 943 192 249  
Mug.: 618 214 282  
 [sagarmina@sagarmina.com](mailto:sagarmina@sagarmina.com)  
[www.sagarmina.com](http://www.sagarmina.com)

# k

## kutxabank



Higiezin zerbitzua • Inmobiliaria  
688763289 • [innolhome@gmail.com](mailto:innolhome@gmail.com)



SANTIAGO GARCIA ORDOÑEZ

Abokatu eta ekonomialari elkartuak  
Zerbitzu juridikoak  
670 411 444  
[centerolegal@sgobogados.eus](mailto:centerolegal@sgobogados.eus)

# BOHÈM

## BOUTIQUE

LERSUNDI KALEA 25 - DEBA  
T 608 135 775  
[E.MAITE.BOHEM@GMAIL.COM](mailto:E.MAITE.BOHEM@GMAIL.COM)



## ARENA BAR



## Argazkilaria Ander Salegi

(argazki erreportajeak,  
photoshop-eko erretokeak...)

[andersalegi@gmail.com](mailto:andersalegi@gmail.com)

Tel: 685 703 843



## AURKIBIDEA



# BERRIKETAN 283

2023ko apirila

Azaleko irudiaren egilea:  
Erredakzioa



**8 ALBISTEAK**  
Errigoraren Eskutik eskura kanpainak 9.000 eskaera baino gehiago jaso ditu



**12 ELKARRIZKETA**  
Real Unionen bizitzen ari den esperientzia berriaz mintzo da Iñaki Goikoetxea debarra



**16 ARGAZKI GALERIA**  
Aste Santuko oporraldiak lagatako irudiekin osatutako bilduma ikusgai



**18 ELKARRIZKETA**  
Okerkale Irratia podcast proiektu berriari buruz jardun dira Kultur Elkarteko kideak



**22 GEHIGARRIA**  
'Hauteskundeak, ate-joka. Zer berri M28ra begira?', gehigarri berezia



**36 AGENDA**  
Datozen asteotan egingo diren jarduerak eta ekimenak jaso ditugu atal honetan

Zuhatzza **euskara**  
WzL.deba **elkartea**

**Berriketan**

**ARGITARATZAILEA**  
Zuhatzza Euskara Elkartea  
**HELBIDEA**  
Ifar kalea, 12 behe. 20820 (Deba)  
**TELEFONOAK**  
943 19 13 83 / 632 04 33 22  
**HEDABIDEAREN E-MAILA**  
berriketan@zuhatzza.com  
**ELKARTEAREN E-MAILA**  
koordinatzailea@zuhatzza.com  
**ERREDAKZIOA**  
Izaro Aulestiarte, Nerea Bedialauneta  
eta Alex Turrillas  
**KOORDINATZAILEA**  
Izaro Aulestiarte

**PUBLIZITATEA**  
Joseba Escudero eta Alex Turrillas  
**LOGOTIPOAREN DISEINUA**  
Iñaki Elosua  
**MAKETAZIOA**  
Maku Oruezabal  
**TIRADA**  
1.400 ale  
**MAIZTASUNA**  
Hilabetekaria  
**INPRIMATEGIA**  
GERTU koop. (Oñati)  
**LEGE GORDAILUA**  
SS/246/200  
ISSN: 2171-7656

**LAGUNTZAILEAK**



DEBAKO UDALAK



Gipuzkoako Foru Aldundia

**Oharra:**

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA, GUTUNAK eta KOLABORAZIOA ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak berriketan@zuhatzza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.

# Gutunak

## Hauteskunde usainean auzoetara

Gutun honen helburua da Debako Udalak Mendi Bideen ordenantzan egindako kudeaketa txarraren ondorioak herritar guztiok ordaindu beharko ditugula jakinaraztea. Labur-labur gure kasua azalduko dizuet:

2021eko apirilean hasi zen gutzia. Basoa ateratzeko baimena eskatu genuen. Egindako txostenak zioen bezala, fidantza ordaindu genuen. Basoa ateratzen amaitu bezain azkar, uztailean, fidantzaren itzulketa eskaera egin genuen. Denbora pasa eta pasa, eta ez genuen inolako erantzunik. Azkenean, urte eta bost hilabete beranduago erantzuna iritsi zaigu. Txostenak dioten moduan, zati bat apurtu egin zen eta fidantzaren zatitxo bat (%6,7) bueltatzea ezabatu dute.

Gainera, 12. artikulua dioena ez dute bete, ez baitigute gut konpontzeko aukerarik eman. Bueno, erreklamatu ondoren eman digute. Konpontzeko egindako aurrekontua egin zenean KPIak zuen balorea eta gaur egun duena ez datoz bat eta, ondorioz, igoera hori herritar guztiok ordaindu beharko dugu, udalekoek erantzuna berandu emateagatik.

Orain, hauteskunde garaian gauden honetan, baserri buruak euren burua aurkezten dabilzanak "apurtu eta konpondu gabe" dauden errepideetatik pasatzean kontuz ibili daitezela, bidea ez dadin gehiago apurtu. Dirudienek, hauteskunde usaina dagoenean bakarrik gogoratzen zarete errepide horietatik egunero pasatuz baserri bizi diren herritarrez. Hauteskundeak pasa ondoren, berriro ere hor konpon!

Jose Oñederra Salegui

## Eta zuek? Bazatozte?

Giro lauso bat da; sentsazio, sentimendu, lurrin iraukor bat; maitemintze prozesu bat. Edo hala esango genuke geuk, eta egun heldu diren orduko beste gaztetxo askok.

Musu berezia ezpainetan nola, hala ditugu endredatuta burmuinean: 1,2,3,4 guneen arteko pauso hautsezatuak; euskararen aldeko kanta itsaskorrek (*Lingua Vasconum...*); guraso edo txartelei esker ikasitako zuhaitz-izenak; urteko lehen bainu eta azal erreak Senpereko lakuan; Bittor Aiape bozgorailuetatik; *Gora Euskadi* txapel mitikoak; solomo, piper eta gazta bokata gehi sagardo botila tiket-txosnetan; *Oranginaren* mikatza; lokatza Eganen kontzertuan dena emanda dantzan; gustuko harekin topo egitea plastikozko komun-kabina ataskatuen ilaran; euskalkietako hitz exotiko-xelebreak; euskal talde "ezezagunen" (Kashbad, Exkixu, Lugarri, Berri Txarrak...) kontzertuak entzutea lehenengoz belar hezetan eserita; ordua ondo jota saltaka abiatzea Debako autobuserantz autobus-errenkada amaigabea zehar, eta, azkenean, Arrasateko autobusean itzultzea Arrasatera (mugikorrik gabeko garaiak doan oparitu ohi zituen abentura-paketeak); Beran gas negar-eragileetatik ihesi ezezagunekin partekatutako kotxeak (txarrean ere ona)...

Urratsez *Urrats*, *Oinez*, egindako *Kilometroekin Euskara* urtez urte arnasberritzearekin bat, geure bizitzan *Ibilaldi* jakin bat egin genuen: diruz nekez eros daitekeen opari aberasgarria. Horregatik, gure ondorengoei hainbeste opa diegulako, maiatzaren 14an Senperen egingo den Herri Urratsen parte hartzera animatu nahi zaituztegu.

Autobusez joateko, apirilaren 17tik maiatzaren 7ra, Labataien eman ahal izango da izena (12 euro); irteera-ordua 8:45ean izango da, eta itzulerakoa, 19:00etan.

Aurtengo leloak dioten moduan, *Urratsak zubi* baitira, lurraldeen, hizkuntz komunitateen, eta, nola ez, belaunaldien artean.

Oihana Esnaola eta Nagore Dorronsoro

Maitena Arrizabalaga Deba  
Odontologia

Kolegiatu zk.20.000.975

**maitena**

HORTZ KLINIKA

Tel. 943 83 04 24      Gipuzkoa kalea 28-3ºesk, Zarautz

**Seven Clovers**  
Irish pub

943 191 295





## Neskek ere hirukoa!

Debasket Saskibalo Klubak aurtengo denboraldian izan duen nobedade garrantzitsuena kadete mailako nesken taldearen parte-hartzea izan da. Klubaren historia laburrean lehen aldiz parte hartu du emakume talde batek Gipuzkoako lehiaketetan. Orain arte talde mistoak izan ditugu lehiatzen, emakume senior talde bat ere ibili zen entrenatzen, baina emakume talde bat Debasket Saskibalo Klubaren izenean lehiatu den lehendabiziko aldia izan da. Albizu Harategia Debasket izan da taldea, hain zuzen ere.

Agian batzuentzako sekulakoa da aurreko lerroetan adierazitakoa, baina Debasket Saskibalo Klubak are eta gehiago nabarmendu nahi du talde honek denboraldi osoan izan duen jarrera. Euren jarrera eredugarria da, kantxa barruan zein kanpoan, eta, nola ez, entrenamendu eta partidetan. Nahiz eta denboraldian partidetan lortu dituzten emaitzak ez diren izan onenak, umoreak eta giro onak beti izan du lekua taldean, eta, nola ez, denenganako errespetuak ere bai. Debasket Saskibalo Klubetik harro esan dezakegu jokalariek aurrerapen handia egin dutela kirol mailan, are gehiago taldeko kideek orain arte saskibaloiarekin izan duten harremana kontuan hartuta.

Klubak duen helburuetako bat pertsonak garatzea da eta aurten, ohartu gabe, pertsona hauek garatu dute kluba. Debasket oso pozik dago neska talde honek eman duen izugarriko aurrerapausoarekin eta kontziente da orain denon lana dela talde hau bermatzea, indartzea eta ahal den neurrian beste maila batzuetan ere emakumeen kirola bultzatzea. Horregatik, interesa duzuen guztioi Debasketen parte hartzeko deia egin nahi dizuegu. Ateak beti egongo dira irekita edozeinentzako. Bide batez, urtero bezala, maiatzetik aurrera ate irekiak egiten hasiko garela gogorazi nahi genuke. Adi gure sare sozialei!

**Debasket Saskibalo Kluba**

## Maiatzaren 13an, Arrano Eguna

Apirilaren 1ean, *Gureak ere badira: desira, boterea, epika* liburua aurkeztu izan genuen Ispiluen gelan. Hasiera eta amaiera duen istorio bat kontatzeaz harago, gogoetarako gonbidapena egiten du liburua, munduari erreparatzeko begirada gazte, abertzale eta feminista eskainiz, eta partekatze, eztabaidatzeko eta eraikitzeko ideia batzuk mahai gainean jarri; horrenbestez, amaiera baino gehiago abiapuntu bat eskainiz.

Eraitz Saez de Egilaz eta Lur Albizu liburua idazleek belaunaldien arteko arrakala, nazio pultsua edota, besteak beste, botere subjektu kontzeptuak aztertu eta eraldatu behar diren inguruko hausnarketarako abiapuntuak proposatzen dizkigute. Beraz, Arrano Elkarteak bere 40. urteurrenean antolatutako hitzordua izateko haratago, idazle hauek eraldatze eta eraikitze prozesuan proposaturiko gai horiei buruzko zein bestelako gai batzuei buruzko hausnarketa zein eztabaidak sustatzearen aldeko testigantza jaso eta luzatu nahiko genizuke.

Bestalde, hurrengo hitzordua maiatzaren 13an dugula gogorarazi nahi genuke, Arrano Egunaren ospakizunean. Elkartearen sortu zeneko inguruabar latzak, bidean jasandako "trabak" zein egungo egoera zaurgarria ahaztu gabe, gurea dugun jaiari eta borroka izaerari eutsiz ospatuko dugu eguna. Herria panpin, buruhandi eta musikariek in girotuz hasiko dugu eguna, 12:00etan. Ondoren, Plaza Zaharrean, ospakizun girotua eta eguna irudikatzen argazkia aterako dugu eta, jarraian, herrian kalez kale ibiliko gara. Azkenik, ohiko tokietan eskuragarri izango dituzuen tiketak eskuan hartuta, bazkaria egingo dugu Arrano Elkartearen.

Eskerrik asko, bihotzez, Arrano Eguna posible izan dadin laguntza eskaini duzuen guztioi eta hitzorduan bertan parte hartuz eguna bera egi bihurtuko duzuen guztioi!

**Arrano Elkarte**

## ITURLAN, S.L.

Iturgintza - Berogailuak

Mogel kalea, 1 - Behea  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tfno. Mugikorra: 635 717 732  
Tfno.-Fax: 943 192 553  
fontaneriaiturlan@iturlan.com



**A. Esnaola  
P. Echeverria**

Hortz klinika Clínica dental

Fermin Calbeton 19-3 ez. EIBAR  
943 20 72 17 - 660 422 808

@pyadent

# Ezin da lotu adina zahartzaroarekin

NAGUSILAN

Ez dago zahartzarorako adin finko bat, malgua da; osasun fisiko, mental eta sozialarekin zerikusia du, eta, agian, autonomia galtzen dugunean zahartzen gara. Baina gogoratu gizakiontzat naturala dela mendekotasuna izatea. Umeak mendekoak dira eta gizaki guztiok gure bizitza osoan autonomoak izan nahi dugun arren, beti behar ditugu beste pertsona batzuk inguruan, izaki sozialak garelako.

Euskal Estatistika Erakundearen (EUSTAT) 2022ko txostenak dioenez, Deba-Itziariko 5.380 biztanleen artean, %20k 20 urte baino gutxiago dituzte, eta %24,80 65 urtetik gorakoak gara. Txosten horren arabera, 65 urte edo gehiago ditugun 1.335 biztanle gara, 705 emakume eta 630 gizon.

Aldaketa sozialengatik eta gure adina handitzen ari denez gero, jubilatuen talde soziala irekia eta askotarikoa da. Aniztasun hau beste gizarte talde batzuetan ere ikusten da. Ondorioz, adituek adinen kontzeptuak birformulatu dituzte: hirugarren adinekoak edo heldu gazteak, eta laugarren adinekoak edo heldu nagusiak. Hirugarren adina 60-65 urtetik 80-85 urte bitartekoa izango litzateke; orokorrean, beraien osasun fisikoa, mentala eta soziala nahiko ona izaten da. Laugarren adinekoak 80-85 urtetik gorakoak izango lirateke, eta gaixotasun degeneratiboak eta kronikoak agertzen hasten dira tarte horretan. Mendekotasun handiena dutenek inguruko senideen eta zerbitzu soziosanitarioen laguntza izaten dute.

Hirugarren eta laugarren adinek zerikusia daukate adin biologikoarekin eta adin kronologikoarekin. Adin biologikoak gure gorputzaren funtzionamenduan eragiten du, gorputzaren zahartze prozesuan. Batzuen eta besteen gorputzak, hala ere, era ezberdinean zahartzen dira. Adin kronologikoak, berriz, zerikusia du jaiotza datarekin, nortasun-agiri nazionalarekin. Adin kronologikoa ezin dugu aldatu, baina adin biologikoa bai: jarduera fisikoarekin eta sozialarekin, elikadurarekin, lo osasungarriarekin, eta abarrekin.

Erretiro adinaz hitz egiten dugunean, pentsioaz pentsatzen dugu batik bat, eta ez zahartzen garen moduaz. Zahartzea ez da adinaren kontua bakarrik, lanaren eta



Aitzuri abesbatza.



Kalean Kantuz.

bizitzaren historia ere bada. Nola zahartzen dira idazkari bat edo metalurgiko bat, garraiolari bat edo mediku bat..., lan finkoa daukana edo lanik gabe dagoena? Ez da berdina. Bizitza itxaropenak zerikusi handiagoa dauka klase sozialarekin genetikarekin baino; bizimoduarekin, alegia, gure lanarekin, gure hezkuntza mailarekin...

Lanetik jubilatzea ez da gizartetik irtetea. Oso garrantzitsua da aktiboa izatea, proiektuak, ametsak eta zaletasunak aurrera eramatea. Ez da aisia edukitzeko denbora bat bakarrik, aitzitik, garai aproposa da Debako hainbat talderekin kolaboratzeko, lan solidarioa egiteko, ariketa fisikoa egiteko, liburuak irakurtzeko, euskara hobetzeko, lagunekin eta bilobekin ibiltzeko...

Sozialki aktiboa izatea ez da pertsonalki aktiboa izatea bakarrik. Gizarte aktiboak barne hartzen du belaunaldien arteko elkartasuna, eta hor belaunaldi guztiak sartzten dira, ez helduak bakarrik. Jubilatuta izatea ez da behararekin eta mendekotasunarekin lotu behar, ahalmenarekin baizik.

*“Ondo zahartzeko, haurtzaroko jakin-minari, nerabazaroko nahiei eta helduen erantzukizunei eutsi behar zaie, eta, zahartzen joan ahala, hirugarren (eta laugarren) adinean, aurreko urteetako esperientziaz baliatzen saiatu behar da”.* (Edgar Morin)



KETXUS AMASORRAIN

## A ze parea, karakola eta lotsagabea

Duela urte batzuk gertaturiko pasarte hau benetakoa omen da, niri behintzat egiazko moduan saldu didate eta erositako prezio berean eskaintzen dizuet.

Egun haietan, errepideek ez zuten gaur egungo auto saturaziorik eta bazegoen bideak txukun mantentzeaz arduratzen zen lanbide bat: "kamiñeroena". Beraien lana izendatutako errepide zatia txukun mantentzea zen, batez ere bide bazterreko sastraka eta belar txarretatik garbi.

Orduan ere, gaur egun bezalaxe, bi eratako langileak zeuden, langile finak eta langile alferrak eta gure istorioaren protagonista den Felix bigarren taldekoa zen, dudarik gabe eta bete-betean.

Kamiñero bakoitzak bide zati bat zaindu eta mantendu behar zuenez, gehienetan bakarka ibili ohi ziren lanean eta beraien arduraduna noizean behin bakarrik pasatzen zen lanen egoera gainbegiratzera. Gure Felixek ondo kontrolatuta zituen gainbegiratzailearen bisita egunak eta egun horietan fin aritzen zen arren, hortik kanpora alferkerian pasatzen zituen egun gehienak.

Alferkerian zegoen egun batean, zuhaitz baten gerizpean lasai etzanda, arduradunak ustekabeko bisita egin zuen eta Felix luze-luze aurkitu zuen. Bere egoera zuritu nahian, honela mintzo zen Felix: -Minutu erdi ere ez daramat hemen etzanda eta banoa bueltan berriro lanera.

Bere zereginera bueltatzeko, lanabes moduan zuen aitzurra hartzera gerturatu zenean, Felix eta bere arduraduna aitzurraren kirtenaren puntara iritsita zegoen karakolari begira geratu ziren.

Kontuz karakolekin!

**"Orduan ere, gaur egun bezalaxe, bi eratako langileak zeuden, langile finak eta langile alferrak"**

LIZ.-ZK.: 3

**TaxiAlain Deba**

WiFi

[www.taxideba.eus](http://www.taxideba.eus)

**636 135 008**  
alain@taxideba.eus

**LABATAI**  
taberna

GOSARIAK GOIZEKO  
06:00 ETATIK AURRERA

PINTXOAK, OGITARTEKOAK  
ETA PLATER KONBINATUAK,  
EGUN OSOAN ZEHA



## 9.000 eskaera baino gehiago jaso ditu Errigorak

Errigorako kideak pozik agertu dira udaberriko kanpainak izan duen harrerarekin. Guztira 9.000 eskaeratik gora jaso ditu euskara eta elikadura burujabetzaren aldeko ekimenak eta, hori hala, 120.000 litro olio eta 26.000 sorta edo lote banatuko ditu Euskal Herri osoan.

“Zorionak Errigoraren *Eskutik eskura* kanpainarekin bat egin dugun guztioi! 9.000 eskaera baino gehiago jaso dugu aurtengoan. Mila esker, bihotzez, Nafarroa hegoalde eta erdialdeko uztari 9.000tik gora sukaldetako atea zabaltzeagatik. Eta, era berean, zorionak, uzta jasotzearekin ere egingo baitugu: kontsumitzaileen partetik jasotako babes izugarria

ekoizpenaren eremuan pauso berriak emateko akuilu izango da”, nabarmendu dute ekimeneko arduradunek.

### Eskariak gora herrian ere

Deban, 50 eskaera baino gehiago egin dira azken kanpaina honetan eta guztira 10.600 bat euroko ekarpena egingo zaio Errigorari (iaz baino %33 handiagoa).

Zuhatza Euskara Elkartearen babesa du ekimenak herrian; hortaz, elkarteko bazkideek produktuak Deban jasotzeko aukera izango dute. Banaketa maiatzaren 10ean egingo da, Aldats pilotalekuan (11:00etatik 13:00etara, eta 17:00etatik 19:00etara).

## Errenta aitortpena euskaraz egiteko deia egin dute beste behin ere

Apirilean hasi eta ekainaren 30era arte iraungo du errenta eta ondarea aitortzeko kanpainak Gipuzkoako foru ogasunean eta, beste behin ere, errenta aitortpena euskaraz egiteko deialdia egin dute UEMAK eta beste hainbat erakunde publikok elkarlanean, tartean Debako Udalak. Herritarrek administrazioarekin dituzten harremanak euskaraz izan daitezen sustatzeko helburua du kanpainak.

Errenta euskaraz egiten duten herritarren kopurua urtez urte gorantz doan arren, errealitate soziolinguistikoak erakusten dituen datuetatik urrun dago oraindik. Deban, esaterako, iazko kanpaina egin ziren 2.900 errenta aitortpenetatik soilik 829 egin ziren euskaraz eta gainontzeko beste 2.071 aitortpenak beste hizkuntza batzuetan egin ziren.

UEMAK herritarrei gogorarazi dien bezalaxe, errenta euskaraz egiteko modu ezberdinak daude, hala nola "autolikidazio proposamena onartzeko orduan, eta baita aitortpena Internetez edo modu mekanizatuan ogasunaren bulegoetan aurrez aurre egitean ere, euskaraz egin nahi duzula hautatuz edota dagokion langileari horrela adieraziz".



**ASKETA, S.L.**

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

**OFICINAS Y EXPOSICION:**  
 Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)  
 Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460  
 E-mail: asketa@telefonica.net  
 www.asketa.net

**ALMACÉN:**  
 Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9  
 20850 MENDARO (Gipuzkoa)



**K21**  
 KALITATEA  
 Enpresa Registrada Nº 21.051.049  
 NIVEL 2



**Bar LOREA**

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tfnoa.: 943 191 095





EIDER ALDALUR

## Laguna ala etsaia

Honela definitzen du bere burua GPT txatak: "ChatGPT naiz, adimen artifizialeko hizkuntza-eredua, OpenAIk garatua, datu ugaritan trebatua eta galderei erantzuteko eta gai askotan testuak sortzeko diseinatua".

Aitortu beharra daukat GPT txatak ez dakiela ongi euskaraz. Cervantesen hizkuntzan eta hizkuntza anglosaxoian, ordea, primeran aritzen da. Hizkuntza gutxituentzat galbahea berriz ere. Horregatik, esaldi hau gazteleraz sortu dut eta, ondoren, Elia itzultzaile neuronalaren laguntzaz itzuli dut. Ikus dezakezuenetz, ukiturik ere egin gabe, bikain dago esaldia.

GPT txatak sekulako arrakasta izan du kaleratu zutenetik. Izan ere, tresna honek erantzuna arrazionala den kasuetan oso azkar ematen ditu kalitatezko emaitzak. Niretzat, egun, laguntza handia da lanerako, batez ere testuak sortu eta programazio kodeak diseinatzeko. Laburbilduz, esan genezake software honek potentzial neurgaitza duela.

Hala ere, baditu oraindik neurtu ere ezin diren arazoak. Batetik, GPT txata etengabe ari da datuak jasotzen erabiltzaileek sartzen dizkioten elkarrizketetatik. Lagun on batek sarri dioen bezala, produktu bat doan erabiltzen ari baldin bazara, zu zeu zara produktua.

Bestetik, txat honek informazioaren monopolioa beregana dezake, baina tira, ukaezina da Google bilatzaileak dagoeneko botere hori eskuratua zuela. Azkenik, baliteke tresna hau lagun izan beharrean etsai bihurtzea. Izan ere, gure sormen gaitasunak eta pentsamendu kritikoa suntsi ditzake, baina, kasu honetan ere, jada Instagram eta enparauek halakoetan bazuten eraginik. Beraz, laguna ala etsaia izango da GPT txata?


**"Lagun on batek sarri dioen bezala, produktu bat doan erabiltzen ari baldin bazara, zu zeu zara produktua"**



**AUKERA**  
INMOBILIARIA

[www.aukera-inmobiliaria.com](http://www.aukera-inmobiliaria.com)  
Aukerarik onena!


943 12 13 95 



**ZALBURDI**

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

# Askotariko ekintzak Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzeko



Ruper Ordorikaren kontzertua Kultur Elkartearen. MARTIN LORES

Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzeko hainbat ekintza egin dituzte Deban. Egitarauari hilaren 21ean goizean egin zen III. Ipuin eta ilustrazio lehiaketaren sari bana-ketarekin eman zioten hasiera.

Arratsaldean, berriz, *Deba 100 hitzetan* literatur lehiaketaren sariak banatu zituzten. Euskarazko modalitatean, lehen eta bigarren sariak Iñigo Legorburuk irabazi ditu, *Huts* eta *Eskura* lanengatik. Saritu gabeko herriko lan onena, berriz, Olatz Andonegiren *Gazi-Gozo* idazlana izan da. Gaztelaniazko modalitatean, lehen saria Rafa Bravo debarrarentzat izan da, *Adoquines Deba* izenburuko lanarengatik, eta Bravok berak

eraman du hirugarren saria ere, *Amor de ultratumba* lanarengatik. Bigarren saria, berriz, Miguel Angel Gallok eskuratu du *Deba Connection* idazlanarekin.

Liburuaren Eguna aitzakiazat hartuta, egun osoko egitarau berezia egin zuten hilaren 22an Kultur Elkartearen. Goizean, liburu azoka eta mikro irekia izan ziren. Gaeuan, aldiz, Ruper Ordorikak kontzertua eman zuen. Eta, hurrengo egunean, bigarren emanaldi bat ere eskaini zuen musikari oñatiarrak.

Aurtengo egitarauari Irakurketa Klubaren saioarekin eman diote amaiera, apirilaren 25ean, Luisa Carnés-en *Tea rooms* liburua hizpide hartuta.

## Euskal Kostaldeko Geoparkeak bisitari ugari hartu ditu Aste Santuan

Eguraldia lagun, Aste Santuan bisitari andana izan da Geoparkeaz gozaten. Jakitera eman dutenez, datuak "positiboak" izan dira Deba, Mutriku eta Zumaiaren kasuan. Turismo bulegoetara jo duten bisitarien kopurua ez ezik, bisita gidatuetan eta irteeretan egon den parte-hartze handia ere nabarmendu dute.

Zehaztu dutenez, Aste Santuko lehen hiru egunetan erakarri zuen jende gehien Geoparkeak; hau da, apirilaren 6tik 8ra. "Publiko zabalari eskainitako jarduera erakargarriak eskaini ditu Geoparkeak aurtan ere, Deba, Mutriku eta Zumaiako ondare kulturala, naturala eta geologikoa ezagutzera emateko, eta, horri esker, ehunka lagunek gertutik ezagutu dute lurraldearen aniztasuna".

Datu aipagarritzat zehaztu dute bisita gidatuetan gipuzkoar ugari parte hartu duela aurtan: "Euskal Herriko bisitarien artean gehiengoa osatu dute, nafarrekin eta bizkaitarrekin batera". Bestalde, Kataluniatik eta Madrildik etortitako bisitarien kopurua ere azpimarratu dute Geoparkeko arduradunek. Emandako datuen arabera, Aragoi, Valentzia eta Gaztela Leonetik ere bidaiari asko gerturatu da aurtan.

**Torrealday**

**AHOLKULARITZA  
LIDERRA,  
TOKIKO  
ARIMAREKIN**

ZERGA, LAN ETA  
KONTABILITATE  
AHOLKULARITZA

ONDARRIOA - 96 683 29 75  
EBRAUA - 96 377 44 35  
Eta beste herri batzuetan.

[www.torrealday.es](http://www.torrealday.es)

**Berriketan .eus**

parte hartu  
parte izan

**MAIEDER** Eider Sampayo  
hortz klinika Maialen Linazasoro

Inplanteak eta kirurgia  
Periodontzia · Endodontzia  
Estetika eta zuriketak  
Protesiak · Odontopediatria  
Azido hialuronikoa  
Aho-aurregi eta ATM alterazioak

**Zarautz**  
Kale Nagusia 9-1  
943 13 32 69  
722 81 56 60  
dental@maieder.com  
[www.maieder.com](http://www.maieder.com)



GORKA AGIRREZABALA

## Su baxuan

Su baxuan prestatzen omen dira gauza garrantzitsuak sukaldean, patxadaz, arretaz sukaldaritzako ikuspegitik edota gauzak txukun egin nahi ditugunean ere bai.

Atzera begiratzea besterik ez daukagu, gure amama eta amen sukaldeetara, bertan sortzen baitzuten, maitasun handiz, bizitzeko hain beharrezkoa dugun erregai aberats eta gozoa.

Agian maitasuneko sukalde haietatik ateratzen ziren jaki goxoek eman diote gure herriari ondo jatearen ospea mundu mailan; horrek eta gure baratetako altxorrek hain ondo zaintzen dituen gure klima bereziak ere bai, garaian garaikoari garrantzia emanaz.

Gaur egun, globalizazioarengatik agian, beste herrialdeetako kutxuz bete zaigu euskal sukaldaritzak. Hango eta hemengo jakien nahasketaren ondorioz, gero eta zailagoa izaten zaigu hain maitatua dugun sukaldaritzak topatzea. Michelin izarraren munduko *per capita* kontzentrazio handiena du, baina jakina da leku horietako prezioak astronomikoak direla; paradoxikoa dirudien arren, astronomiarekin zerikusia duela gastronomiaren mailak, alegia. Alde batera utzita geratzen al da gure gastronomia izar edo eguzki formaren ospearen truke?

Zorionez, oraindik aurki ditzakegu sukaldean lapiko handi bat su baxuan duten jatetxeak, menuak gure baserriarren eta arrantzaleen barazki eta arraineekin osatzen dituztenak. Herri txiki eta mendi zokoguneetan oraindik aurki dezakegu amonaren eskua nabaritzen zaion eta Euskal Herriko zaporea duen sukaldia.

Izan dadila gaur egun arte gure baserrietako atarrietako zaindari izan den eguzki-lorea gure gaur egungo jatetxeetako zaindari astro-gastronomikoa.

**"Michelin izarraren munduko 'per capita' kontzentrazio handiena du, baina jakina da leku horietako prezioak astronomikoak direla"**



ekodenda,  
dietetika,  
belardenda

**ZERBITZUAK:**

* Fisioterapia - Osteopatia	* Podologia
* Gimnasia hipopresiboak	* Dietista

Lersundi, 14      943 19 24 42      sasoiiko@hotmail.com



**GENOVEVA**  
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Telf.: 943 191 818

# “Gauzak ez dira espero bezain ongi ateratzen ari, baina jokalaria haur aurrera ateratzeko konfiantzaz daude”

IÑAKI GOIKOETXEA • Futbol entrenatzailea



Jokalaria zein entrenatzaile bezala ibilbide oparoa egin ondoren, debarrak martxoaren erdialdean hartu zuen Real Unionen gizonetako lehen taldearen gidaritza, klubeko administrazio kontseiluak David Movilla kargugabetu ondoren. Goikoetxea, zehazki, denboraldi honetan ardura hori hartu duen hirugarren prestatzailea da; aurretik, izan ere, Aitor Zulaika eta David Movilla egin ziren Stadium Gal-eko aulkian.

**I**rungo Real Union taldea bolada txarra igarotzen ari da eta Lehen Federazioko mailari eustea izango da Iñaki Goikoetxea (Deba, 1982) entrenatzailearen eta berarekin batera lantalde tekniko osatuko duten Ricardo Costaren, Ibon Zoiloren eta Ivan Curielen egiteko nagusia. Taldea jaitziera postuetan dago eta, salbaziotik gertu egonda ere, beheko postuetatik burua altxatu ezinda jarraitzen du. Debarra erronka berriari aurre egiteko "gogoz" dago. Irungo taldearekin daukan egitekoari eta etorkizunera begira dituen asmoei buruz mintzatu da *Berriketan* aldizkariako kazetariekin.

**Esperientzia berri bat bizitzen ari zara Real Unionekeko entrenatzaile bezala. Hainbat futbol talde entrenatu ondoren, erronka berriari zer asmorekin egiten diozu aurre?**

Erronka oso gogorra da, baina datorrenari aurre egiteko ilusioz beterik dago.

**Nola doa esperientzia berri honen hasiera?**

Ondo esan behar! Banekien ez zela gauza erraza izango eta momentu txarrak edukiko genituela, baina hori guztia ondo barneratuta dut, eta horrekin bizitzen ikasi dut.

**Gainera, ondo ezagutzen duzun taldea da Irungo Real Union. Jokalaria bezala hainbeste eman dizun klubeko lehen taldea entrenatzea berezia izango da zuretzat, ezta?**

Bai, oso esperientzia berezia izaten ari da niretzat. Urte asko eman ditut Real Unionen jokatzen eta esperientzia hartatik bizipen on asko gordetzen ditut. Orain, gainera, Irunen bertan bizi naiz eta, egia esan, kluba eta klubarekin zerikusia duen guztia oso gertutik bizi dut.

**Erronka gogorra duzu aurretik. Izan ere, bolada oso txarrean hartu duzu lehen taldearen gidaritza. Taldea jaitziera postuetan dago eta, emaitza txarrak tarteko, aurreko bi entrenatzaileak kargugabetu ondoren iritsi zaizu aukera. Zuen moduko egoera zail baten aurrean, zer da garrantzitsuena?**

Halako egoera zail baten aurrean, garrantzitsuena lasaitasuna mantentzea dela esango nuke. Halako egoeretan, hain zuzen ere, urduritasun handia egoten da bai klubaren barruan eta bai zaletuen artean, eta horrek jokalariaengan eragin zuzena izaten du. Nire ustez, jokalariei egunerokotasunean konfiantza eta gertutasuna ematea da garrantzitsuena, betiere esijentzia eta ardura alde batera utzi gabe.

### **Konfiantza eta puntu faltan egoteaz gain, nola aurkitu duzu taldea?**

Taldea lanerako gogotsu aurkitu dut. Oso urtezaila izaten ari da guztiontzat. Gauzak ez dira espero bezain ongi ateratzen ari, baina jokalariek hau aurrera ateratzeko konfiantzaz daude eta horrek lasaitasun puntu bat ere ematen dit.

### **Duzuen ardura kontuan hartuta, presio handia izango duzue, ezta? Halako egoera baten aurrean, nola lortzen da taldea mentalki indartzea?**

Edozein kiroletan pisu handia izaten du buruak eta hori ondo kudeatzen jakitea garrantzitsua izaten da. Guk lehenengo egunetik argi eduki dugu entrenamendu saio motzak egin nahi genituela burua ez kargatzeko. Izan ere, ez genuen nahi jokalariek ordu asko igarotzerik klubean. Nahiago izan dugu entrenamendua amaitu eta jokalariek beraien gauzak egiteko denbora izatea, futbolari buruz ahalik eta gutxien pentsatzeko.

### **Sasoiko azken txanpan hartu duzu gainera kargua. Jardunaldi gutxi batzuk geratzen diren arren, mailan mantentzeko aukerak badituzue oraindik. Ba al dakizue mailari eusteko zenbat partida irabazi edo berdindu behar dituzuen?**

Egia esan, ez ditugu kontuak atera; nik behintzat, ez. Norberak hurrengo partida irabazitzat emango balu, galduz gero zer? Nire ustez, halako kontuak ateratzeak ez du ezertarako balio. Oraindik jardunaldi asko gelditzen dira eta, beraz, gauza asko gerta daitezke.

### **Zuena ez ezik, beste hainbat talde ere mailari eusteko ahaleginetan gogor dabilta. Mantentze postuetatik banatzen zaituzten puntu gutxi horiek lortzeko gai ikusten al duzu taldea?**

Arerio asko gaude 4-5 punturen tartean, baina gure taldea gai ikusten dut mantentze postuetatik banatzen gaituzten puntu gutxi horiek lortzeko.

### **Mailari eustea zer litzateke zuretzat?**

Lehen entrenatzaile bezala aritzen naizen lehenengo esperientzia profesionala da honakoa eta niretzat izugarrizko lorpen pertsonala izango litzateke hainbeste eman didan talde honek mailari eustea.



Iñaki Goikoetxea. REAL UNION

## **“Arerio asko gaude 4-5 punturen tartean, baina gure taldea gai ikusten dut mantentze postuetatik banatzen gaituzten puntu gutxi horiek lortzeko”**

### **Zure ustez, zeintzuk izango dira guztia ondo bidean joateko gakoak?**

Gako asko daude, baina gakorik garrantzitsuena gure taldea sendo mantentzea izango da. Hau da, lehendabizi golik ez jasotzea, eta gero erasoan asmatzea.

### **Porrota litzateke zuretzat taldea Lehen Federazio mailan ez mantentzea?**

Taldea, egia esan, ez nuen egoerarik onenean hartu eta, alde horretatik, ardura ez litzateke nirea izango, baina nire barrenean porrota nire ardura dela sentituko nuke, aukera ez baliatzeagatik eta benetan sinesten dudalako zulo horretatik atera gaitzkeela.

### **Oso maila zorrotza eta lehiakorra da zuena. Zaudeten egoeran gonda, jarraitzaileak Stadium Gal-era**



Iñaki Goikoetxea entrenamendu saio bat gidatzen. REAL UNION

**hurbiltzea eta horien babesa sentitzea ere garrantzitsua izango da. Zer eskatzen diozu taldeari eta zer zaleei?**

Nik beti esaten dut taldeak animatu behar duela jarraitzailea, bai jokoarekin eta bai zelaian erakusten duen intentsitatearekin. Zaleek ahalegin hori guztia ikusten dutenean, segituan animatzen dute.

**Denboraldi amaierara arte duzu kontratua. Eta gero, zer asmo duzu?**

Taldea maila honetan mantentzea da orain momentuan buruan dudan helburu bakarra. Etorkizunean zer etorriko den ez dakit.

**Arlo personalean, zer ikasi nahiko zenuke esperientzia honetatik?**

Indar handiko esperientzia izaten ari da niretzat. Pertsonalki, asko ikasten ari naiz, bizitzen ari naizen momentuarengatik eta beste taldeetatik jasotzen ari naizen erantzunarengatik ere bai. Joko mota, entrenatzeko moduak, buruaren kudeaketa... maila honetan guztia da desberdina.

**Amaiak Batekin egin zenituen lehen urratsak. Garai hartako zer oroitzapen dituzu?**

Ziur asko haiek izan ziren futbol jokalaria bezala

**“Taldea maila honetan mantentzea da orain momentuan buruan dudan helburu bakarra. Etorkizunean zer etorriko den ez dakit”**

bizitako momenturik onenak. Txikitatik joaten nintzen Errotazarrera aitarekin partidak ikustera eta gero bertan lagunekin jokatzea izugarria izan da. Egia esan, asko eskertu behar diot Amaiak Bati, hor hasi baitzen nire futbol ibilbidea.

**Jokalari gisa hainbat taldetan jokatzeo aukera ere izan duzu. Zein esperientzia nabarmenduko zenuke?**

Urte hauetan guztietan bizipen pila bat izan ditut eta, batez ere, bidean aurkitu ditudan lagunak nabarmenduko nituzke. Orain dela 20 urte jokatu nuen jokalariekin ere oraindik harremana dut; nik uste horrek laburbiltzen duela esaten dudan guztia.

## Amaiak Bateko haur mailako nesken taldea nagusitu da Martuteneko IX. Torneoa



Apirilaren 16an Martutenen jokatu zen IX. Torneoa irabazi du Amaiak Bateko haur mailako nesken taldeak. Futbol 8ko txapelketako kopa irabazita, "oso pozik" agertu dira Debako klubeko ordezkariak. "Txapelketa batetik kopa etxera ekartzea sekulakoa izan da jokalarientzat".

Azpimarratu dutenez, futbol 8an aritzen den taldeak "emozioz" beteriko txapelketa jokatu zuen. Gazteek ez zuten zorte handirik izan goizean jokatu zen multzokako fasean; bai, ordea, arratsaldean

lehiatu zuten Kopako fasean. Multzokako faseko norgehiagokan partida bakarra irabazi zuten eta, multzoko hirugarren sailkatu zirenez, Kopako fasean aritu ziren arratsaldean. Hiru partida jokatu zituzten azken fase horretan eta hiruretan penaltietan irabazita eskuratu zuten garaikur preziatua.

### Aldamar torneo, Urkirentzat

Bestalde, egun berean Debako Errotazar zelaian jokaturako haur mailako mutilen XV. Aldamar torneoan Eibarko Urki taldea gailendu da.

Jose Aldamar Amaiak Bateko presidente zenaren omenezko txapelketa, ohi modura, hiruko eran jokatu zen. Aurten Urki, Elgoibar eta Amaiak Batek parte hartu dute norgehiagokan eta, partida bat irabazi eta beste bat berdindu ondoren, Urki nagusitu da.

## Eneko Ortega Larrañagak irabazi du 48. Amaiak Bat txirrindulari lasterketa

Besa-Laboral Kutxa taldeko Eneko Ortega Larrañagak irabazi zuen apirilaren 15ean lehiatutako 48. Amaiak Bat txirrindulari lasterketa. Junior mailako txirrindulariak 2 ordu, 40 minutu eta 6 segundo behar izan zituen 105 kilometroko ibilbidea osatzeko.

Lasterketa, gainera, esprintean erabaki zen. Azken metroetan sekulako erakustaldia eskaini zuten Eneko Ortegak eta Ulma-Aloña Mendi taldeko Beñat Iñarra Mateok, baina helmugan gupila sartzen lehena Ortega izan zen. Hirugarren sailkatua Bellota Goierri taldeko Gari Ugarte Larrea izan zen; lehen bi sailkatuek baino 7 segundo gehiago behar izan zituen ibilbidea osatzeko.

Euria tarteko, lasterketa nahiko "gorabeheratsua" izan zen, baina erorikoren bat edo beste izan bazen ere, ez zen zauritu larririk egon.

Iturkale 2 behea - Deba, Gipuzkoa | 943 19 26 31

**Zumardi**  
pentsioa  
Tel.: 688 800 619  
info@pensionzumardi.com  
www.pensionzumardi.com

**IZENBE**

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

**ORAIN**  
ileapaindegia  
943 19 21 09  
Hondartza kalea, 2  
Deba

**BURU - ZURI**  
Taberna

- Otartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauefan tragoak

Lersundi Kalea, 23  
Tel.: 943 191 034  
20820 DEBA

# Oporraldiari zukua atera diote gaztetxoek

Udaberriko oporraldia era dibertigarriagoan eta anitzagoan bizitzeko aukera izan dute udalerriko haur eta gaztetxoek, adinari egokitutako jarduera ezberdinak izan baitituzte aukeran. LH1etik 6ra bitarteko haurrek, esaterako, apirilaren 12an jolasak egin zituzten Aldats pilotalekuan, Kolore Anitz Aisialdi Taldearen eskutik; berez, Kalbariora mendi irteera egitekoak ziren, baina eguraldi txarraren ondorioz tailerrak egin zituzten azkenean. Gaztelekuaren ekimenez, bestalde, askotariko ekintzak egin zituzten herriko gaztetxoek Aste Santuko oporraldiko egitarauaren baitan. Besteak beste, Debacup futbol txapelketa mistoan parte hartu zuten, Zumaia eta Deba arteko kostaldetik ibilaldia egin zuten oinez, irteerak egin zituzten Donostiako Laser Tag-era zein KNS abentura parkera eta egonaldia egin zuten Lasturren.







# “Helburua podcastak grabatzeko espazio bat sortzea izan da, gogoia duenak eskuragarri izan dezan”

MANEX ASTIGARRAGA ETA LOURDES GONZALEZ • Okerkale Irratia



Ostolaza kalearen lehengo izena darama Kultur Elkartearen lehen pausoak ematen hasi den podcast proiektu berriak. Martxoaren amaieran aurkeztu dute Okerkale Irratia eta dagoeneko bost programa zabaldu dituzte egitasmoaren Spotify, Ivoox eta Youtube Interneteko kanaletan. Herritarrentzako lehen bilera irekia egin ostean, Manex Astigarraga eta Lourdes Gonzalezen hitzetan jaso ditugu ekimenaren nondik norakoak.

**E**gungo kontsumo ohituretara egokitzen den formatua da podcasta. Irratsaio klasikoen antza du, baina irratia entzuteko (eta egiteko) beste modu bat eskaintzen du; saioak ez dira zuzenean emititzen, adibidez, baina norberak nahi duenean entzun ditzake edukiak, Internet bidez. *Euskal Hedabideen Urtekaria*-n jasotako datuek zera diote: iaz egindako inkesta baten arabera, Hego Euskal Herriko gazteen erdia pasatxok entzuten ditu podcastak, bereziki unibertsitarioek (%71,9); Bigarren Hezkuntzako artean, kopurua %49koa da. Ez da, ordea, gazteen kontua soilik, adin orotara zabaltzen ari den kontsumo joera baizik. Nazioartean ez ezik, gurean ere indar handia hartu du audiogintzak urteotan. Adituen esanetan, geratzeko etorri den formatua da.

## Zer helbururekin jaio da Okerkale Irratia?

**M.A.:** Helburua podcastak grabatzeko espazio bat sortzea izan da, gogoia duenak eskuragarri izan dezan. Bestela, helburu zehatzik ez dakit esaten, horrelako zerbait martxan jartzeko gogoia geneukan gutxi batzuen ideiatik sortu eta apurka-apurka handitzen joan da

taldea, interes bera zuten edota ideia gustatu zaien kideak batu ahala.

**Kultur Elkartearen erronka berria da, berria eta berritzailea. Aurrez antzeko jarduerarik izan al da inoiz elkartearen?**

**L.G.:** Nik 15 urte daramatzat Kultur Elkartearen eta ordutik ez dut halako proiekturik ezagutu. Esan daiteke, orain artean, komunikabide moduan *Deba* aldizkaria dela Kultur Elkartearekin lotura duen aurrekari aipagarriena (Kultur Elkartearen webgunera ere aldizkariko artikulua igotzen dira). Orain, gaur egungo moldeetara egokitutako proiektu hau abiarazi dugu eta taldeak ilusioz diharduela dirudi.

**Nolatan murgildu da elkartearen halako proiektu batean?**

**L.G.:** Proiektua martxan jartzeko ideia Kultur Elkartearen zuzendaritzaren bilera batean proposatu zen eta hasiera-hasieratik ideia ona iruditu zitzaigun guztioi. Horrela, elkartearen bazkideekin ere proposamena kontrastatu genuen urteko batzarrean. Proposamenak guztion babesa zuela ikusita, lanean hasi ginen. Gainera, elkartearen zuzendaritzako hainbat kide ere buru-belarri sartu dira proiektuan.



Manex Astigarraga eta Lourdes Gonzalez. ERREDAKZIOA

**Azken hilabeteotan, elkartearen proiektua sendotze aldera, herritarren babesa eskatu duzue. Bazkide kanpaina, ekimen ezberdinak... nola uztartzen dira Kultur Elkartearen eta irrati proiektu berri honen dinamikak?**

**L.G.:** Kultur Elkartearen martxan jartzen diren dinamika guztietan herriko gainontzeko kultur taldeen zein norbanakoen parte-hartzea bilatzen dugu. Zentzu horretan, Okerkale Kultur Elkarteak abian dituen dinamika eta jarduera ezberdinen ahotsa izateko tresna egokia dela iruditzen zaigu.

**Martxoaren amaieran zabaldu zenuten 0 programa.**

**Aurrez, baina, lanean ibili zarete guztia prestatzen, ezta? Noiztik zabilzate proiektuan murgilduta?**

**M.A.:** Ba esango nuke konturatu orduko urtebete inguru izango dela bideari ekin genionetik. Orduetik, intentsitate ezberdineko aldiak izan ditu prozesuak, baina pausoka-pausoka interesdun ezberdinekin elkartu, Kultur Elkartearen babesa eta laguntza lortu, baliabideak eskuratu eta guztia prest utzi dugu.

**Irratia dela diogu, baina ez da irrati formatu klasiko edo ohiko bat; podcast programaren aldeko apustua egin**

**“Okerkale Kultur Elkarteak abian dituen dinamika eta jarduera ezberdinen ahotsa izateko tresna egokia dela iruditzen zaigu”**

**duzue Okerkalen. Zergatik? Zerk eraman zintuzten formatu berriagoa hautatzera?**

**M.A.:** Garaiak aldatuz doaz eta, gaur egun, irratiaren antzeko formatua izan arren oinarrian zerikusirik handirik ez duen formatu hau modan dago. Baliabide aldetik xumeagoa da (ez du emititzeko antenarik behar, adibidez), eta aukera malguagoak eskaintzen ditu (ordutegi zehatzik ez, saioen luzera zurrunik ere ez...).

**L.G.:** Gainera, edozein unetan entzun daiteke estudioan grabaturikoa eta Internetera sarbidea duen edozein lekutatik. Erosoagoa da, beraz, bai entzuleentzat eta baita sortzaileentzat ere.



Gonzalez eta Astigarraga, Kultur Elkarteko plazan. ERREDAKZIOA

**Estudioa atondu duzue Kultur Elkarteko azken solairuan. Zer nolako lana ekarri du guztia prestatzek?**

**M.A.:** Agian, lana baino gehiago inbertsioa eskatu du. Bestela, lan handiena soinu ekipoarean eta audio ediziorako programaren funtzionamendua ikastea izan da. Guztia muntatzea ez da hainbeste kostatu.

**Gutxieneko ezagutza bat beharko da halako espazio bat sortu ahal izateko... Maila teknikoan, esaterako, laguntzarik izan al duzue?**

**M.A.:** Adituak eta ez hain adituak bertaratu dira laguntzera. Euren laguntzarik gabe ez dakit lortuko genukeen, baina prozesua luzatuko zela behintzat seguru. Beraz, hemendik eskerrak eman nahi dizkizuegu borondatez etorri zareten laguntzaileei.

**Estudioak azpiegitura profesionala duela diozue. Nola finantzatu da estudio berriaren sorrera?**

**L.G.:** Proiektu interesgarria zela ikusita, estudioa martxan jartzeko beharrezkoa zen materiala ordaindu du Kultur Elkartek. Guztira 3.000 euro inguruko inbertsioa izan da.

**Apirilaren 10ean bilera irekia egin zenuten, proiektua aurkeztu eta herritarrak bertan parte hartzera animatzeko. Nola joan zen aurkezpena? Pozik orain artean proiektuak izan duen harrerarekin?**

**M.A.:** Ondo joan zen. Azalpen orokor bat eman eta

**“Orain arteko onarpena eta programak ekoizten hasteko abiadura uste baino handiagoa izan da”**

**“Edukien kontua irekia dago parte hartzaileen interesetara. Ez dago irizpide mugatzailerik”**

instalazioak ikusi genituen. Orokorrean, proiektuaz gehiago jakin nahi zuen jendea etorri zen bilerara. Batzuk hurrengo egunean bertan grabatzen zebiltzan jada, bada zer bait egingo duela esan duenik eta besteren bat animatzea espero dugu... Orain arteko onarpena eta programak ekoizten hasteko abiadura uste baino handiagoa izan da.

**Ilusioz ekin ohi zaie erronka berriei, baina zailtasunak ere izaten dira gero bidean. Etengabeko eraldaketa digitalean murgilduta gaude eta, besteak beste, aldakorrak dira modak ere. Zein izango da Okerkaleren biziraupena bermatuko duen gakoa?**

**M.A.:** Bi gako aipatuko nituzke akaso: edukia ekoizten duten pertsonen konstantzia eta publikoarengan izan dezakeen oihartzuna.

**Gaur-gaurkoz, zenbat lagun zabilzate Okerkalen?**

**M.A.:** Hamar bat eta hazten doa kopurua. Zaharrak, gazteak, beteranoagoak, zaletasun asko eta ezberdineko kideak gaude tartean.

**Dagoeneko abian daude hainbat programa, ezta?**

**L.G.:** Orain momentuan bost programa ezberdin daude martxan: *La atalaya* –Debako herriarekin lotutako historia eta gertakizunen bueltakoa–, *Hi bai zu!* umorezko programa, *Suntsitu makina* –rock-punk musikaren ingurukoa–, *Mixterioaren ontzia* –anekdotak



Hainbat programatan parte hartzen duten esatariak Okerkale Irratiaren estudio berrian. MARTIN LORES

ezberdinei buruzko solasaldiak biltzen dituen-, eta *Dabilen harria* elkarrizketa programa.

**Zer nolako edukiekin elikatuko da Okerkale? Gaiei dagokienean, adibidez, edonolakoak izan daitezke podcastak? Ala irizpide zehatzak daude arlo horretan?**

**M.A.:** Edukien kontua irekia dago parte hartzaileen interesetara. Ez dago irizpide mugatzailerik, azpimarratu beharrekorik ez, bederen.

**Eta ba al dago kontuan hartu beharreko bestelako baldintza edo jarraibiderik? Saioen hizkuntza, iraupena, maiztasuna... eta halakoei dagokienean?**

**M.A.:** Oraingoz ez dago aparteko jarraibiderik arlo horietan. Hizkuntzari dagokionean, adibidez, norberak aukeratzen du nola jardun; orain arte egin diren saio gehienak (bostetik lau) euskaraz egin dira, baina norbere aukera izan da. Gauza bera esan genezake saioen iraupenaz eta maiztasunaz ere; erregulartasun pixka bat eskatzen da, batez ere saio asko grabatuko dituzten programetan, baina orokorrean partaideek erabakitzen dute zenbat saio grabatu, zenbateko maiztasunarekin, eta zenbat iraungo duen saio bakoitzak ere bai. Kontuan izan behar den kontu bakarra grabazio estudio bakarra dagoela eta, beraz, ezin direla bi saio aldi berean grabatu. Gainerakoan, dinamika aurrera joan ahala zehaztu beharko dira

bestelako gauza batzuk, hala nola bilerak, komunikazio kanalak, ardurak eta hauen banaketa...

**Proiektu irekia dela nabarmendu duzue. Oro har, zer egin behar da bertan parte hartu ahal izateko?**

**L.G.:** Kultur Elkartean martxan jartzen ditugun proiektu guztiak daude parte hartu nahi duen edonori irekita. Zentzu horretan, programa bat grabatu, estudio berria ezagutu edo bestelako ekimenen bat egin nahi dutenak gurekin jar daitezke zuzenean harremanetan, [ostolazadeba@gmail.com](mailto:ostolazadeba@gmail.com) edo [okerkale@gmail.com](mailto:okerkale@gmail.com) posta elektronikoetara mezu bat bidalita, adibidez. Bestalde, saio bat grabatzeko berez ez da beharrezkoa jakintza berezirik izatea. Gainera, kontu teknikoetan lagundu eta arlo horretan dakitena irakasteko prest dauden gazte boluntario batzuk ere badaude.

**Noiz eta nola entzun daitezke saioak?**

**L.G.:** Saioak Internet bidez entzuten dira, mugikorretik edo ordenagailutik. Okerkale Irratiaren Youtube, Spotify eta Ivoox kanaletara igotzen dira eduki guztiak. Programa bat sortzen denean, gainera, Kultur Elkarteko sare sozialetan partekatzen da.

**Zeintzuk dira aurrera begirako erronkak?**

**M.A.:** Ba agian gaitasun teknikoak hobetzea, jende gehiago batzea eta funtzionamendua formalizatuz joatea. Eta epe luzera begira, proiektuaren jarraipena bera.



# Hauteskundeak, ate-joka

## Zer berri maiatzaren 28ra begira?



Herritarren botoa jasotzeko prest izango dira hautetsontziak maiatzaren 28an; igande horretan, udal hauteskundeekin batera, Nafarroako Parlamenturako eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako batzar nagusietarako hauteskundeak izango dira. Hori hala, alderdi eta eragile politikoak hauteskunde-kanpainan murgilduko dira maiatzaren 12tik 26ra bitartean, eta kanpaina horri aurrea hartu nahi izan dio, beste behin ere, *Berriketan*-eko erredakzio taldeak.


**H**ilabete baino gutxiago geratzen da maiatzaren 28rako eta martxan dira hitzordurako prestaketa lanak. Herritarrek ordura arte itxaron beharko dute aurrez aurreko botoa emateko, baina, apirilaren 4az geroztik, eta maiatzaren 18ra bitartean, posta bidezkoa eska dezakete.

Hauteskunde-kanpainan maiatzaren 12an sartuko gara bete-betean. Nolanahi ere, duela aste edo hilabete batzuetatik hona nabaria da gurean ere hauteskundeen usaina. Apirilaren 24an amaitu da hautagai-zerrendak erregistroan aurkezteko epea eta maiatzaren 1ean aldarrikatuko dituzte hautagaiak. Aldez aurretik, ordea, Deban hainbat eragilek aurkeztu dituzte jendaurrean euren hautagaiak, ekitaldi publikoetan. Eta, ildo beretik, legez araututako hauteskunde-egutegi ofizialari aurrea hartu nahi izan dio *Berriketan*-ek berak ere.

Horretarako, ondoko orrialdeetan ikusiko duzuen galdetegia bideratu diegu udal hauteskundeetarako hautagai-zerrendak aurkeztu dituzten indar politikoei. EAJ-PNV, EH Bildu, Orain Deba eta PSE-EEko alkategai izango diren herritarren hitzak jaso ditugu. Bestelako alderdi batzuei ere egin zaie, dena den, ale honetan euren erronka edo egitasmoen berri emateko gonbitea. PPren kasuan, aldizkari honen edizioa ixterakoan baieztatu du hautagaitza aurkeztuko duela; ez du, ordea, bestelako datu edo informaziorik eman. Debarren Ahotsa ez da aurkeztuko hauteskundeetara (azken bi agintaldietan ez bezala) eta hurrengo orrialdean duzue horren berri emanez aldizkarira igorri duen gutuna. Horiek hala, lau urteotan Debako Udalean ordezkaritza izan duten EAJ-PNV eta EH Bilduren esanak bildu ditugu, baita orain arte ordezkaritza izan ez duen PSE-EErenak eta lehenbizikoz aurkezten den Orain Debarenak ere.

Bestalde, Itziariko Auzo Udalean ere jarri nahi izan du arreta *Berriketan*-ek, auzo alkatea hautatzeko beste boto-ontzi bat ere izango baita Itziarren M28an. Denon Herria plataformak bidalitako gutuna duzue irakurgai.

## > 2019ko udal hauteskundeetako emaitzak • Deba



## > 2019ko Gipuzkoako Batzar Nagusietako hauteskundeetako emaitzak • Deba



Iturria: [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)

## Plazer handia izan da! • Debarren Ahotsa



Zortzi urte igaro dira, bi agintaldi, 2015eko udaberrian Debako herritar talde batek, Itziarko Toki Erakunde Txikia (TET) sortzeko hartutako erabakiarekin eta gobernu taldearen kudeaketa-ereduarekin bat ez zetorrela eta, Debarren Ahotsa plataforma osatzea erabaki genuenetik. Debaren alde eta Debarentzat lan egiteko ilusio eta gogo handiko jende anitza elkartu ginen eta herritarren konfiantzari, kide guztien ahaleginari eta jasotako babes ekonomikoari esker hauteskundeak irabazi genituen.

Hasieratik, Deba ideia, proposamen eta pentsatzeko modu ezberdinekiko irekiagoa izatea izan zen gure helburua, gardentasun eta herritarren partaidetza politiketan oinarrituta. Baina Itziarko TETari buruz hartutako erabakia ez zen gure boto-emaleen zati baten gustukoa izan, eta hori 2019ko hauteskun-

deetan islatu zen; eta, orainoan, EAJren babesik ez izaterakoan, oposizioa pasatu ginen.

Azken lau urte hauetan, gobernu taldearekin lanean eta lankidetzan aritu gara, Debaren garapen eta hobekuntza egokia zaintzeko eraikuntza-ariketa kritikoa eginez.

Gustatuko litzauguke urte hauetan egindako lanari jarraipena ematea eta "Debarren Ahotsa" herriarentzat etorkizuneko proiektua izatea, baina ezingo da hala izan. Zortzi urteko lana eta dedikazioa izan da, taldeko kideok ilusio handiz egin duguna, baina agur esateko garaia iritsi da. Ez dugu belaualdi-erleborik lortu, eta, beraz, ez dugu hautagaitzarik aurkeztuko maiatzaren 28ko hauteskundeetara.

Eskerrak eman nahi dizkiegu hasieratik babesa eman ziguten eta taldearekin elkarlanean jarraitu duten pertsona guztiei. Eskerrik asko, Deba, plazer handia izan da!



## Alazne Txurruka Allika EAJ-PNVren alkategaia

### Lehen aldiz aurkezten zara alkatez- tzara. Nola hartu duzu erronka?

Erronka handia den arren, ilusioz eta erantzukizunez hartu dut. Lan egiteko gogoz nago eta nire onena emateko prest. Argi dugu nolako herria nahi dugun, guztiontzako herria, guztion beharrak aseko dituen, eta horretarako gogotsu eta indarrez aurkitzen naiz.

### Nola baloratzen dituzu azken lau urteak? Zertan asmatu da eta zertan ez?

Galdutako beste lau urte izan direla uste dut. Udal gobernuak azaldu duen gestiorako gaitasun faltak herria geldirik egotea ekarri du, eta ez hori bakarrik, gelditasun horrek herriaren gainbehera nabarmendu du eta kasu askotan etorkizuna hipotekatu du.

### Zeintzuk dira uneotan arazo nagusiak herrian?

Asko eta askotarikoak dira herriak dituen arazo edo gabezia nagusiak. Etxebizitza falta nabarmena da: baita ostalaritza eta komertzio urritasuna ere; turistek ez dute Deba bisitatzen; azpiegitura eza agerikoa da; herriaren mantenua ere eskasa da, Zumardia eta hondartza ingurua utzita daudela ikusten da...

### Zein alorretan jarriko ditu indarrak zure taldeak agintaldi berrian?

Etxebizitza faltari irteera eman nahi-ko genioke, Osio eta Amillagaren garapena bultzatuz. Herriko adinekoak erdigunean jarrita, zainketen tokiko ekosistema lortzea izango da helburua. Turismoa estrategikoa da herriaren garapena bultzatu nahi badugu eta ostalaritza eta komertzioa indartzen saiatuko gara. Trenen maiztasunari eta trenbide pasaguneari irtenbidea emateko pausoak emango ditugu. Herria bizirik mantendu nahi badugu, nahi-tazekoa da kultur ekipamendu bat izatea eta honen kokapenaren inguruko azterketa egingo dugu, lehenbailehen egikaritzeko pausoak emanaz. Zumardia berreskuratzeko beharrezko pausoak emango ditugu. Itziarriko industria-gunea balioan jartzen saiatuko gara. Kooperatiba energetikoa martxan jarriko dugu... Itziarren, berriz, Itziarriko Auzo Udalarekin orpo orpo egingo dugu lan itziararren behar eta nahiak ahalik eta ondoen bete daitezien, eta lehen-tasunezkoa den eskola txikia bultzatuko dugu, horretarako beharrezko diren baliabideak bideratuz.

### 100 udal baino gehiago ditu egun UEMAk; Deba da horietako bat. Euskararen erabileraren datuak apalduz doaz, ordea. Zer nolako hizkuntza politika landuko duzue?

Deba udalerri euskalduna da eta hizkuntzaren ezagutza maila oso altua da, baina egia da erabilera datuak gero eta eskasagoak direla eta horrek kezkatzen gaitu. Erabileran eragina izan dezaketean eremuetan

eragin beharko dugu ohitura bihurtu direnak aldatu ahal izateko, hala nola aisialdi guneetan, kirol taldeetan... Hauek dira hizkuntza naturaltasunez erabiltzeko gunerik aproposenak eta hauetan eraginda, ohiturak aldatzeko aukera izan dezakegu. Oraindik badira euskaldundu beharreko eremuak eta indar berezia jarriko dugu, adibidez, komertzioaren euskalduntzean, kanpotik datozeinei euskara eskuragarri jartzen, euskara ikasi nahi dutenei horretarako baliabideak eskaintzen. Herri euskaldunean bizi garela nabarmentzen saiatuko gara.

### Gobernatzeko beste alderdiekin akordioak egiteko prest zaudete?

Gure herriak aurrera egingo badu, guztiokin egingo du aurrera. Datozen udal hauteskundeetako emaitzak zeintzuk diren ikusi beharko dugu lehendabizi eta zein akordio egin ditzakegun ikusi beharko dugu ondoren, betiere gure izateari eta gure hauteskunde-programari eutsiz.

### Zergatik eman beharko litzaioke botoa zure alderdiari?

EAJ-PNVri botoa ematea bermea izatea da. Zintzotasunez eta leialtasunez aginduko dugun bermea izatea, gainerako estamentuekin elkar-lanean arituko garen bermea izatea. Gestiorako gaitasuna duen talde eraginkorra dugu, gizon-emakume prest dagoena, herria axola zaion taldea eta herriaren alde lan egiteko gogotsu dagoena. Guztiok gaude gure onena emateko prest herri honen eta bertan bizi garenok merezi dugun herria izan dezagun. Eman-dako hitza beteko dugu.



EAJ-PNV • Udal hauteskundeetako hautagaien zerrenda

1. Alazne Txurruka | 2. Asier Urain (ind.) | 3. Mónica de Prado (ind.)
4. Jon Riaño | 5. Anton Garay | 6. Ainhoa Urbietta (ind.)
7. Igone Urkiri (ind.) | 8. Andima Egaña | 9. Esther Ansola (ind.)
10. Iñaki Amilleta (ind.) | 11. M<sup>a</sup> Asunción Larrañaga (ind.)
12. Beatriz Resa | 13. Javier Zalduegui



ehbildu



## Gilen Garcia Boyra

### EH Bilduren alkategaia

#### **Bigarren aldiz aurkezten zara alkatezara. Nola hartu duzu erronka?**

Azken lau urteotan lan handia egin dugula esango nuke eta hasi dugun bide horretan sakontzea da gure borondatea. Herriarekin konprometitu nintzen eta oraingo honetan ere konpromiso hori berresten dut: udalgintzatik herrigintza egiten jarraitzea.

#### **Nola baloratzen dituzu azken lau urteak? Zertan asmatu da eta zertan ez?**

Alkatetza hartu genuenean mahai gainean zeuden gai korapilatsuak kudeatzea egokitu zitzaigun: hilerriko espedientea epaitegian, Itziarko Auzo Udalaren modifikazioa, zubia, udal barneko dinamika... Gai horiei erantzuna ematen joan gara, agian ez nahi bezain azkar, baina emandako pausoak sendoak izan dira. Ez dira proiektuak soilik kontuan hartu behar, haiek bideratzeko moduan ere jarri dugu indarra, erabakiak ahalik eta kontsentsu zabalena erekin hartuz eta horrek emaitza onak eman ditu. Agintaldi berezia izan da eta herritar zein eragileekin aurrez aurre egoteko aukerarik ez dugu izan pandemiarengatik. Barruan dararamadan arantza bat da hori.

#### **Zeintzuk dira uneotan arazo nagusiak herrian?**

Arazoak baino gehiago erronkak ditugula esango nuke. Hauek zerrendatuko nituzke bat-batean: etxebizitza, zaintza eredia, tokiko garapen orekatua, kulturagune finko baten beharra, ondarearen eta turismoaren arteko oreka lortzea, trantsizio energetikoan pausoak ematea...

#### **Zein alorretan jarriko ditu indarrak zure taldeak agintaldi berrian?**

Etxebizitzaren alorrean, adibidez, Etxebizitza Plana izango dugu ardatz, kontuan izanik zein den marko orokorra (etxebizitzaren prezioak, kostako herrien presio gehigarria, espekulazioa...) eta gure errealitate zehatza, gure herrian bizitzeko aukerak bermatzea izango da erronka. Zaintzaren alorrean, ekosistema ikuspegia oinarri, gaztetxoentzako heziketarako zein aisialdirako guneak sortzea da helburua, baita nagusien lasaitasuna bermatuko duen zaintza eredia marraztea ere, aldundiarekin elkarlanean. Bestalde, tokiko garapen orekatu eta iraunkorraren bidean, Itziarko Enpresa Parkearen potentzialitatea baliatzea izango da lan lerroetako bat, eta horretarako lankidetzak mahaiari jarraipena eman nahi diogu. Lehen sektoreari bultzada emateko, berriz, elikadura politiketan ezagutza handiagoa duen administrazioa izatea sustatuko dugu, erabaki estrategikoak hartzeko asmoz, betiere Auzo Udalarekin eta Agroekologia Sarearekin elkarlanean. Bestelako asmo batzuen artean, kulturagunea-

ren behin betiko kokapena, trantsizio energetikoa, turismo orekatua eta elkarzaintzarako gune balioaniztuna garatzea ere nabarmenduko nituzke.

#### **100 udal baino gehiago ditu egun UEMAK; Deba da horietako bat. Euskararen erabileraren datuak apalduz doaz, ordea. Zer nolako hizkuntza politika landuko duzue?**

Azken urteotan arlo honetan egingdako lana nabarmena izan da udalean: euskara lehenetsi dugu lanerako eta harremanetarako hizkuntza gisa. UEMAREN baitan subjektu aktiboa izan gara eta horren adibide ere bada abenduko batzarra Deban ospatu izana. Ildo beretik jarraitu nahiko genuke aurrerantzean, herritarrek inplikaturik eta eragileekin elkarlanean, denongan baitago giltza.

#### **Gobernatzeko beste alderdiekin akordioak egiteko prest zaudete?**

Noski, ikusi besterik ez dago nola egin dugun lan orain artean, amaitzean den agintaldian hartutako erabakien %80 aho batez onartu dira. Akordioak erdiesten lan egin behar dela pentsatzen dugu.

#### **Zergatik eman beharko litzaioke botoa zure alderdiari?**

Guztion artean lortu nahi ditugulako aurreko galdera-erantzunetan aipatutako asmoak eta erronkak. Azken urteotan ekingarri bideari jarraipena eman nahi diogulako etorkizunean, hori guztia egin dezakeen taldea daukagulako EH Bildun, eta denok merezi dugun udalerria elkarrekin eraikitzeko bitartekoa garelako.



EH Bildu • Udal hauteskundeetako hautagaien zerrenda

1. Gilen Garcia | 2. Itziar Irizar | 3. Antxoka Elorza | 4. Oihana Irusta
5. Aritz Larrañaga | 6. Eduarne Aristi | 7. Jon Ander Urain
8. Mari Seara | 9. Sabas Bedialauneta | 10. Miren Gurutz Peña
11. Roke Arantzamendi | 12. Mila Aranguren | 13. Antxon Etxeberria
14. Itziar Larramendi | 15. Egoitz Alberdi | 16. M<sup>a</sup> Jesus Carrillo



## Isidro Aristi Oruezabal Orain Debaren alkategaia

### Lehen aldiz aurkezten zara alkatez-tzara. Nola hartu duzu erronka?

Lehenik eta behin, eskerrak eman aldizkariari, nire iritzia adierazteko aukera emateagatik. Argitu nahi nuke nirea ez dela erabaki indibiduala izan, debar talde baten erabaki kolektiboa baizik, eta ekimen berri honi nik jarri diot aurpegia, protagonismo handiena hartuz jendearen aurrean. Pertsonalki, erronka izugarria da niretzat. Batzuetan, bihotzetik hartzen dira erronkak. Gure artean beharrezkoa ikusten genuen aurre-rapauso bat ematea; norbaitek hartu behar zuen erantzukizuna eta kasu honetan nik hartu dut, egin behar nuela sentitzen nuelako.

### Nola baloratzen dituzu azken lau urteak? Zertan asmatu da eta zertan ez?

Udal kudeaketaren azken urteotako bilakaera jarraitu dugu eta desengainu handia hartu dugu. Udal kudeaketa, eduki berrien ikuspuntutik, hutsa iruditu zaigu; egiten ari zena aurreko agintalditik zetorren, ekimen berri gutxi zegoen, eta ez zen egiten arlo garrantzitsuenetako batean ere. Gazte talde bat zen eta zerbait berria ekarriko zutela uste genuen, baina ez da gertatu. Bere-

hala geratu ziren oso mugatuta eta berezko ekimenik gabe. Gauza asko egin dituzte, horietako asko eguneroko kudeaketakoak edota galeriarantzatz eginak, baina ez funtsezkoak. Herriarentzako estrukturalak eta ezinbestekoak direnak ez dira ukitu. Oraindik kaxoietan daude.

### Zeintzuk dira uneotan arazo nagusiak herrian?

Herriko kudeaketak ez du arazorik sortzen. Berez, badaude erronkak, aspaldikoak, zerrenda luze bat dago, eta horiei aukerak eta irtenbide egokiak topatu behar zaizkie. Hor dago koska, kontua da behingoz mahai gainean ipintzeko gogoia izatea.

### Zein alorretan jarriko ditu indarrak zure taldeak agintaldi berrian?

Herrialdea bere osotasunean ikusi behar da. Debak arlo ezberdinak ditu eta bakoitzak bere garapen propioa jarraitu behar du, ondo aztertuta. Noski, hiri-garapena oso garrantzitsua da, etxebizitza berriak eraikitzea (ia prest daude proiektu batzuk), adinekoei arreta emateko azpiegitura egokiak izatea, zumdiko gunea ondo aztertu behar da, kanposantuarena non geratu den... Gazteei entzutea eta kasu egitea ere garrantzitsua da.

### 100 udal baino gehiago ditu egun UEMAK; Deba da horietako bat. Euskararen erabileraren datuak apalduz doaz, ordea. Zer nolako hizkuntza politika landuko duzue?

Ez dakit datu horiek nondik datozen, baina badakit Debako euskararen erabileraren bilakaerak hobera egin duela azken hamarkadetan. Onerako izan da. Herriko laguntza publiko

guztiekin euskara ikasteko, hitz egiteko eta bizitzeko aukerak badaude, arlo publikoan eta pribatuan. Gure gizartea arlo horretan oso heldua da. Gure asmoa euskararen aldeko ekimenak bultzatzea izango da.

### Gobernatzeko beste alderdiekin akordioak egiteko prest zaudete?

Gurea ez da alderdi politiko arrunt baten hautagaitza, herritar plata-forma politikoa baizik, udal hauteskundeetan bakarrik aurkezten gara; beraz, anitzak gara eta jatorri politiko ezberdinekoak. Gure arteko puntu amankomuna oso argi dio gure izenak: *Orain Deba*, besterik ez. Eta noski baietz. Negoziatutako akordioak programa idatzi eta publiko batean izan behar dira. Debako udalerrria eta herria guztien proiektua da; eragile politiko eta sozial guztien erantzukizuna da, baita hemen bizi diren herritar guztiena ere. Guztioi norabide berean arraun egitea espero dugu. Guk garbi dugu, Deba denon artean eraikiko dugu, baina guztiontzat izan behar da.

### Zergatik eman beharko litzaioke botoa zure alderdiari?

Hautagaitza berria da, apaltasunez eta ilusioz aurkezten gara. Lanerako prest gaude udal kudeaketan. Gainerako eragile politikoak eta alderdiak udal gobernua izan dira beti eta dagoeneko erakutsi digute zer izan diren eta zer gauzatu duten herrian azken urteotan. Aukerak eta denbora sobera izan dituzte eta lortutakoa begi-bistan da. Orain, beste eragile berri batzuek aukera izateko garaia da. Orain, zalantzarik gabe, beharrezkoa da Orain Deba.



Orain Deba • Udal hauteskundeetako hautagaien zerrenda

1. Isidro Aristi | 2. Marivi Eizaguirre | 3. Ignacio Javier Aznal
4. Ana Jesús González | 5. Enrique García | 6. Pilar Rincón
7. Enrique Jorge Salgado | 8. Corinne Bruguera | 9. Ignacio Egaña
10. Nerea Alvarez | 11. Antonio Garrido | 12. Ana Zubizaray
13. Cesar Del Olmo | 14. Amparo García

PSE-EE  
PSOE

## Iñaki Azkue Gonzalez PSE-EEren alkategaia

### Lehen aldiz aurkezten zara alkatezara. Nola hartu duzu erronka?

Gogo handiz hartu nuen erabakia. Nahiz eta erantzukizun handia izan, motibatuta nago. Ilusio handia daukat debarrentzat lanean hasteko. Herria hobetzeko lan egin nahi dut, bultzada bat emateko eta “aukeren trenera” igotzeko. Gainera, talde oso ona eta prestatua dut atzean, baita Gipuzkoako sozialisten babesarekin.

### Nola baloratzen dituzu azken lau urteak? Zertan asmatu da eta zertan ez?

Badakigu pandemiak zailtasun asko ekarri dituela eta lehen bi urteetan gure bizimodua guztiz aldatu zuela. Udalak ondo egin zuen herriko denda eta tabernei dirulaguntzak ematen, baina anbizio gutxi eduki du udal gobernuak. Bestalde, aipagarria iruditzen zait nire alderdiki-deek Gipuzkoako Aldunditik Debako zubia konpontzeko egin duten lana.

### Zeintzuk dira uneotan arazo nagusiak herrian?

Egiturazko arazo bat dugu, belau-naldi guztiei eragiten diena. Ez da normala Debak gazteen alde ez egitea. Ez dago aisialdirako alternatibarik txikieneztat, eta gazteentzat ez dago etxebizitza eskaintza handirik.

Ez dugu igerileku klimatizaturik. Bidegorrirek ere ez daukagu. Adinekoek ere ez dute behar handiena dutenak zaintzeko moduko egoitzarik. Seguratasun handiagoa ere behar dugu, ez da normala establezimendu jakin batzuetan hainbat aldiz lapurretak egin izana. Oro har, udal gobernuak abandonatutako Deba ikusten dut.

### Zein alorretan jarriko ditu indarrak zure taldeak agintaldi berrian?

Gastu sozialeko inbertsioa handituko dugu, zerbitzuak eta ongizatea hobetzeko. Bestalde, Deba gainerako erakundeen lehentasunen erdigunean jartzeko lan egingo dut; zaharren egoitza eraikiz, edo bidegorri baten eta igerileku klimatizatuen alde eginez, adibidez. Gainera, gazteei etxebizitzarako sarbidea erraztu edo merkataritza eta ostalaritzarako kanpaina gehiago sustatuko ditugu. Haurrak dituzten familiek Deban erosi ahal izateko laguntza ezartzen saiatuko gara. Laburbilduz, gure proiektua Debara bideratuta dago.

### 100 udal baino gehiago ditu egun UEMAK; Deba da horietako bat. Euskararen erabilerekin datuak apalduz doaz, ordea. Zer nolako hizkuntza politika landuko duzue?

Gure hizkuntzarekin arazo bat daukagu: euskarak ez du historia osoan egun bezalako estatus ofizialik izan, ez hezkuntzan, ez enpresetan eta are gutxiago administrazioetan. Ezagutza duela 20 urte baino handiagoa da. Eta erabilera? Herri askotan eta jendearen artean euskara ez da gaur bezain ahul egon... Ezagun batek dioen bezala, erabilera ezinbestekoa da, ofizialtasuna baino garrantzitsuagoa.

Harro nago sozialistak euskararen arloan erreferente garelako. Lasarte-Oriak jarri zuen abian Euskaraldia, eta bertan sortu zen *Belarriprest* eta *Ahobizi* ekimena; alkate sozialista da ekimen horien bultzatzailea. Udaletako euskara zerbitzuen Udaltop jardunaldien sustatzailea Lasarte-Oria izan da eta sozialisten proiektua da. Euskarak garrantzi handia izango du gure programan. Gainera, Deban aukera handiak ditugu hizkuntza dinamizatzeko.

### Gobernatzeko beste alderdiekin akordioak egiteko prest zaudete?

Argi dago akordioetara iritsi beharoko garela edo bestela paralisi egoera baten aurrean egongo gara, eta debarrek aterako dira galtzen. Hori ikusi dugu EH Bilduren gobernuarekin. PSE-EE debarren bizi-kalitatea hobetzen duten akordioetan egongo da. Gure akordioen ardatza beti izango dira herritarrak, giltzarritzat ditugu.

### Zergatik eman beharko litzaioke botoa zure alderdiari?

PSE-EEK udal mailan egindako lana denek ezagutzen dute. Eskoletan matrikulatutako umeentzako 60 euroko dirulaguntza inplementatu dugu herri ugarritan. Eibar gastu sozialean diru gehien inbertitzen duen hirietako bat da eta Ermuan udal zuntz optikoa dugu. Gure adinekoen ongizatearen alde lan egiten dugu, adinekoentzako zentroak eraikiz, mugikortasun ekonomikoa erraztuz eta gazteei etorkizuna emateko lanean dihardugu. Guztiontzat gobernatzea da gure helburua. PSE-EE dagoen lekuetan inbertsioa, proiektuak, lana eta seriotasuna aurkitzen ditugu.



PSE-EE • Udal hauteskundeetako hautagaien zerrenda

Apirilaren 26az geroztik, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren webgunean [egoitza.gipuzkoa.eus/eu/gao](http://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/gao) kontsulta daitezke alderdi guztien hautagaien zerrendak. Dena den, *Berriketan*-eko tarte honetan, zerrendaburuari eman nahi izan dio lehentasuna PSE-EEK.

## &gt; 2019ko auzo udal hauteskundeetako emaitzak • Itziar



## Auzo alkatea aukeratzeko beste hautetsontzi bat ere izango da Itziarren



Maiatzaren 28an, udalerrri gehienetan bi hautetsontzi izango dira mahai bakoitzean: bat udal hauteskundeetarako, eta bigarrena batzar nagusietarako hauteskundeetarako. Itziarren, ordea, hirugarren kutxa bat ere izango da, Itziaroko Toki Entitate Txikiaren auzo alkatea hautatzeko helburuarekin.

Denon Herria plataformak Arantza Egaña Aldalur aurkeztu du auzo alkategai; Egaña bera jardun da kargu horretan azken agintaldiko lau urteotan ere. Azpiko lerroetan duzue irakurgai plataformak aldizkarirako propio bidali duen gutuna.

### Inoiz baino garrantzitsuagoa da elkarlana • Denon Herria



Itziaroko Auzo Udalak bi agintaldi gainditu ditu jada. Hasiera traket eta gogor hartan halakorik aurreikusten ez bagenuen ere, aurrera jarraitzen du. Lehen legegintzaldiak borroka eta biziraupena izan zituen ardatz. Eta bigarren agintaldi honi, berriz, itxaropenez begiratu genion. Herritarren parte-hartzea eta auzolana bultzatzea, auzo eremuan azpiegitura eta zerbitzu berriak eta hobeak antolatzea, gizarte kohesioa indartzea... Horiek genituen helburu nagusi, eta Debako udalerrian eman zen gobernu aldaketak ireki zizkion ateak horri guztiari.

Pasa den legegintzaldi honek hasiera ezin hobea izan zuen arren, mundu mailan eragina izan duen pandemiak gogor zapuztu zituen hainbat asmo. 1.000 biztanle inguruko eremu sakabanatu honeta-

ra ere iritsi ziren ondorioak, denok etxean sartu gintuen pandemiak, eta hurrengo bi urteetako jarduna erabat baldintzatu duen egoerara eraman. Batzar dinamika hautsi zuen eta harremanak eten, horrek guztiak dituen ondorio lazgarriekin.

Bestalde, horrek barne lana egiteko aukera ere eskaini zigun, eta bigarren legegintzaldia hitz bakar batekin definitu beharko bagenu, egonkortze garaia izan dela esan genezake. Egitura administratiboa finkatzen ari gara; teknikari bat, aparejadore bat eta administrari bat daude eta gainontzeko udalerriko teknikariek izan beharreko harremanak ere lantzen ari gara. Debako Gobernu Batzordearekin koordinazioa lantzeko ere baliagarria izan da pandemia garaia, eta aurrerapauso handiak eman dira.

Orain datorrena eraldaketarako agintaldia izan beharko litzateke-

la iruditzen zaigu. Betidanik herri-gintza helburu izan duen erakundea izanik, Denon Herria plataformatik zera aldarrikatu nahi dugu: inoiz baino garrantzitsuagoa da elkarlana, gizarte honek dituen erronkei aurre egiteko lehengai eraginkorrena herritarren arteko elkarlanean oinarritu behar da, alegia.

Bi ardatz nagusi nabarmendu nahi ditugu: etxegintza eta eskola propioa. Eskola propioaren inguruan hainbat pauso ematen ari gara eta, Debako Udalarekin batera, elkarlanean, gure gazteak bertan geratzeko ezinbesteko diren etxebizitzien faltaren arazoari aurre egin nahi diogu.

Bestalde, pandemia osteko garai honek sortu dituen gabeziak eta beharrak detektatu eta horien inguruko lanketa kolektibo bat bultzatu nahiko genuke, guztion artean zer nolako Itziar nahi dugun erabaki eta aurrera eramateko.

# AURREMATRIKULA MAIATZAREN 8tik 26ra

IKASTETXE PUBLIKO  
DOAKOA



# F



- EGOKITZAPEN FISIKOA
- GIZARTE ETA KIROL IRAKASKUNTZA ETA ANIMAZIOA

# M



- NAZIOARTEKO MERKATARITZA
- GARRAIO ETA LOGISTIKA
- MERKATARITZA JARDUERAK

# A



- ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK  
*+ Administrazioa eta Finantzak eskaintza partziala arratsaldez.*
- ADMINISTRAZIO KUDEAKETA

# I



- SAREKO INFORMATIKA SISTEMEN ADMINISTRAZIOA
- WEB APLIKAZIOEN GARAPENA
- PLATAFORMA ANITZEKO APLIKAZIOEN GARAPENA
- SISTEMA MIKROINFORMATIKOAK ETA SAREA



- ESPEZIALIZAZIOAK
- ZIBERSEGURTASUNA
- INFORMAZIOAREN
- TEKNOLOGIEN
- INGURUNEETAN

[www.uni.eus](http://www.uni.eus)

Otaola Hiribidea, 29 | 20600 Eibar, Gipuzkoa | 943 89 92 11 | [idadkaritza@uni.eus](mailto:idadkaritza@uni.eus) | [@uni.eus](https://www.facebook.com/uni.eus)



**DEBA** | Bulego berria

Maxpe kalea, 7 behea ☎ 943 19 21 06

**EIBAR** | Zezenbide, 4 behea ☎ 943 20 70 02

📷 [asesoriagestilan](https://www.instagram.com/asesoriagestilan)

🌐 [gestilan.es](http://gestilan.es)

✉ [gestilan@gestilan.es](mailto:gestilan@gestilan.es)

# 'Alternatibak Plazara!' dokumentala maiatzaren 5ean iritsiko da Debako Kultur Elkartera



ARG.: ALTERNATIBAK PLAZARA

Hainbat herritan proiektatu ondoren, maiatzaren 5ean iritsiko da Debara *Alternatibak Plazara!* dokumentala. "Krisi anitzei erantzuna emateko" sortutako ikusentzunezkoa Kultur Elkartean ikusi ahal izango da, 19:00etatik aurrera. Dokumentala ikusi aurretik eta ondoren, gainera, dinamika eta solasaldi txiki bat ere egingo dute proiektzioa ikustera gerturatzen diren guztiekin.

Sarrera doakoa izango da eta 2020an Tamara de Graciak, Maite Ezquerrok eta Javier Gonzalezek zuzendutako dokumentalak gutxi gorabehera ordubeteko

iraupena duela esan dute aurkezpene antolatzeaz arduratu diren Deba-Itziarko Talde Feministak eta Mugarik Gabe gobernu kanpoko elkarreak. Jakitera eman dutenez, lana euskaraz eta gaztelaniaz grabatuta dago eta azpituak ditu bi hizkuntzetan. "Beraz, ulergarria da pertsona oroentzat".

Antolatzaileek aurreratu dutenez, dokumentalak bizitza eta planeta zaintzeko gertuko aukerak erakusten ditu, trantsizio energetikoa, elikadura, ekonomia soziala eta ekonomia feministaren zaintzen ikuspegitik abiatuta. "Euskal Herriko hainbat leku zeharkatzen ditu, nekazaritzarekin, elikadurarekin, trantsizio energetikoarekin, zaintzarekin edo ekonomia sozial eta solidarioarekin lotutako ekimenak, alternatibak eta aukera berriak ezagutzeko; bizitza eta lurra benetan zaintzen duten ereduak, komunitateak edo herriak martxan jarritakoak".

Gaineratu dutenez, "alternatiba ezberdinak eta bizi eta kontsumo aukera berriak" ezagutarazi nahi dituzte bertan; "hau da, beste bizimodu berri batera igarotzeko aukera berriak, etorkizuneko jendarte berriengana eramango gaituztenak, oraingoak baino justuagoak eta jasangarriagoak izan beharko direnak".

**Mikel**  
ITURGINTZA

- GASA
- BEROKUNTZA
- ENERGI TERMIKO

ETA BERRIZTAGARRIAK

Hondartza 10 behea,  
20820 Deba

T. 943 191 774  
M. 699 975 206  
info@mikeliturgintza.eus

**ALBIZU**  
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27  
943 19 14 47  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

**ARKATZA**  
Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3  
943 192 057  
20820 DEBA

*Calbeton*

JATETXEA

**Agustín**  
**Larrañaga Elorza**

Denboraldiko platera  
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea  
Tlfnoa.: 943 191 970  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

**ENGLISH**  
**SQUARE**

SCHOOL  
OF ENGLISH

INGELES  
AKADEMIA

**Sokagin kalea 12, DEBA**  
648 268 206  
info@english-square.net

# BAT EGIN, ALTERNATIBEN BILA

Krisi Klimatikoaren aurrean, natura zaindu  
eta bizitza babesteko borrokak eta  
gertuko aukera kolektiboak

Maiatzak 5 - 19:00. Kultur Elkartea, Deba. Doan

## DOKUMENTALA ETA SOLASALDIA!

Nondik hasiko gara?  
Bizitza eta planeta  
zaintzeko gertuko aukerak  
elikadura, trantsizio  
energetikoa, elikadura,  
ekonomia sozial  
eta zaintzetatik abiatuta.



Antolatzen dute



Bobesleak



# Apirila / Maiatza

## MAI. 5 (OSTIRALA)

### DOKUMENTALA

**19:00** 'Alternatibak plazara'. Kultur Elkarte.

## MAI. 6 (LARUNBATA)

### MERKATU TXIKIA

**09:00** Paseo estalia.

### ITZIARKO XIII. ERROMERI EGUNA

**11:00** Kalejira eta mokadua.  
**12:15** Itziarko eta Vianako dantzarien eta herriko trikitixa eskolako ikasleen emanaldia.  
**13:00** Kalejira.  
**14:30** Herri bazkaria.  
**18:00** Erromeria plazan.  
**21:30** Erromeri-afaria Bikain jatetxean.



### KONTZERTUA

**20:00** Kemen Gra. Debako eliza.

### ITZIARKO GAU-IBILALDIA

**20:00** Donostiako Ondarretatik Itziarko Santutegira.

## MAI. 7 (IGANDEA)

### ZINEMA

**19:00** Debadezineren eskutik. Kultur Elkarte.

## MAI. 8 (ASTELEHENA)

### PENTSIODUNEN MOBILIZAZIOA

**12:00** Foruen Plaza.

## MAI. 10 (ASTEAZKENA)

### ERRIGORA BANAKETA

**11:00-13:00/17:00-19:00** Aldats pilotalekua.

## MAI. 12 (OSTIRALA)

### ODOL ATERAKETAK

**16:30-20:30** Txanda eskatzeko: 612 40 21 03 telefonoa. Luzaro ikastetxea.

### KALEJIRA

**Arratsaldean** Musika Eskolako ikasleak, kalez kale.

## MAI. 13 (LARUNBATA)

### ARRANO EGUNA

**11:00** Kalejira.  
**13:00** Ekitaldia. Plaza Zaharra.  
**15:00** Bazkaria. Arrano.

## MAI. 14 (IGANDEA)

### HERRI URRATS

**08:45** Autobusa paseo estalitik. Itzulera 19:00etan.

### ZINEMA

**19:00** Debadezineren eskutik. Kultur Elkarte.

## MAI. 19 (OSTIRALA)

### KALEAN KANTUZ

**19:30** Kalez kale.

### KONTZERTUA

**22:00** Debako Musika Banda. Elizako klaustroa.

## MAI. 20 (LARUNBATA)

### HAUR MARGO LEHIAKETA

**09:30** Haitz Haundi elkartearen eskutik. Foruen Plaza.

### ESKU PILOTA

**11:30** Mikel Goñiren frontoietako agurra. Aldats pilotalekua.

### KALEJIRA

**12:30** Banda Gaztea.  
**13:30** Debako gaiteroak.

### HERRI KIROLAK

**16:30** Euskal Herriko Sokatira Txapelketa. Zumardia.

### BURUHANDIAK

**17:30** Kalez kale.

### KALEJIRA

**19:00** Debako Musika Bandaren eskutik.

### ERROMERIA

**23:00** Akerbeltz. ForuenPlaza.

## MAI. 21 (IGANDEA)

### DEBARREN EGUNA

### DIANA

**08:00** Lizarrako gaiteroekin.

### ENTZIERROA

**08:30** Osiotik plazara. Ondoren, sokamuturra.

### SAN ROKE ERMITARA IGOERA

**11:00** Ezpata-dantza eta meza santua.  
**Ondoren** salda eta txorizoa. Foruen Plaza.

### ERRALDOIEN DESFILEA

**11:45** Kalez kale.

### AURRESKUA

**13:00** Gure Kai EDTren eskutik. Foruen Plaza.



### MARGO LEHIAKETAKO SARI BANAKETA

**17:00** Kultur Elkarte.

### ERRALDOIEN ALARDEA

**18:00** Plaza Zaharra.

### ERROMERIA

**19:00** Gauargi taldearen eskutik. Foruen Plaza.

## MAI. 22 (ASTELEHENA)

### PENTSIODUNEN MOBILIZAZIOA

**12:00** Foruen Plaza.

### IKASTAROAK

**Maiatzeko eskaintza: IKASTAROAK KZgunean.**  
 Aurrez aurrekoak, urrunekoak eta bideokonferentzia bidezkoak. Ordutegia: maiatzaren 1etik 15era, 09:00etatik 13:00etara.

## Eskualdeko Agenda

### ERMUA

#### ANTZERKIA

**Maiatzak 5 (ostirala)**  
**20:30** 'Familia sarekada' (Vaiven konpainia). Sarrera: 10€. Herriko Antzokia.

### SORALUZE

#### ROCK KONTZERTUA

**Maiatzak 6 (larunbata)**  
**21:30** Dawanada + Ezta Ilen + Agur. Sarrera: 5€. Gaztetxea.

### EIBAR

#### 58. EUSKAL JAIA

**Maiatzak 19, 20 eta 21**  
 Asteburu osoko egitaraua: euskal dantzak, azoka, taloak, musika, herri bazkariak...



## Jarraitu gaitzazu!

[berriketan.eus](http://berriketan.eus)

Zuhatza Euskara Elkartea



### HURRENGO HITZORDUAK



[berriketan.eus/agenda](http://berriketan.eus/agenda)

### IRAGARRI ZURE EKIMENA

Ekimenen bat iragarri nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan maiatzaren 19a baino lehen.  
[berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com)  
 943 19 13 83

### Telefono jakingarriak

Zuhatza Euskara Elkartea	943 19 13 83	Haur Eskola	943 19 20 81
Debako Udala	943 19 28 40	Luzaro (Ifar kalea, HH)	943 89 91 55
Itziarko Auzo Udala	943 19 92 55	Luzaro (Itziarko bidea, LH)	943 89 91 54
Udaltzaingoa	689 12 58 89	Luzaro (Itziar, HH)	943 89 93 27
Bake epaitegia	943 19 23 53	Luzaro (Itziar, LH)	943 19 93 06
Eguneko Zentroa	943 19 29 33	Mendata BHI	943 89 92 65
Turismo Bulegoa	943 19 24 52	Deba Musikal	943 19 20 16
Ostolaza Udal Liburutegia	943 19 25 60	Helduen Heziketa Iraunkorra	943 19 21 76
Kiroldegia	943 19 22 62	Debabe Euskaltegia	943 19 22 36
Ertzaintza (Eibar)	943 53 17 00	KZgunea	943 02 36 29
Osasun zentroa (Deba)	943 19 24 24	Gaztelekua	943 19 27 62
Osasun zentroa (Itziar)	943 19 90 42	Labide	945 16 06 00
Itziarko Botikina	687 75 67 21	Correos	943 19 17 99
Botika - A. Zalduegi	669 26 22 01	Mankomunitatea	943 70 07 99
Botika - Burgoa Zuazo	667 33 88 90	Ur Zerbitzuak	943 60 80 02
Gurutze Gorria	943 19 10 32	Debegesa	943 82 01 10
DYA Larrialdiak (Gip.)	943 46 46 22	Euskotren	944 33 33 33
Mendaroko Ospitalea	943 03 28 00	Lurraldebus	900 30 03 40
Eibarko Ospitalea	943 44 90 00	Debako Parrokia	943 19 14 97
Donostiako Ospitalea	943 00 70 00	Itziarko Parrokia	943 19 93 04



**ZAINTZAKO BOTIKA**  
Egunez, 09:00etatik 22:00etara

**BURGOA ZUAZO** maiatzak 5, 6, 7, 22, 23, 24.

**ZALDUEGI** maiatzak 1, 2, 3, 4, 19, 20, 21.

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik.  
Toribio Etxebarria, 4 - 943 20 23 44

**DEBAKO BOTIKAK**

**ZALDUEGI** 669 26 22 01  
**BURGOA ZUAZO** 667 33 88 90

---

Larunbat goizetan beti bat irekita:  
**BURGOA ZUAZO**  
apirilak 29 eta maiatzak 6  
**ZALDUEGI**  
maiatzak 13 eta 20




Deba

Hortz klinika

Hondartza Kalea, 20    info@debaklinika.com  
20820 Deba, Gipuzkoa    T. 943 19 28 19

Odontologia orokorra  
Kirurgia  
Implanteak  
Ortodontzia tradizionala  
Invisalign ortodontzia (Ikusezina)  
Haurren odontologia

\* Interesik gabeko tratamendu-finantzaketarako aukera ere eskaintzen dugu.




PILARIK GABEKO  
AUDIFONOAK  
PROBATU  
HILABETEZ DOAN

Ostolaza kalea 7,  
20820 Deba  
Tel: 943 19 21 92

RPS: 183/12

# Deba-Itziar BIRA



euskara  
elkartea



## MARTXOKO SARRIDUNAK

**1. Saria:** Itziar Gonzalez, Mattin Urbietta, Itziar Larramendi.

**2. Saria:** Sabas Bediauneta, Maite Esnaola, Jokin Oria, Sara Iriondo, Iratxe Astigarraga, Jon Ander Ribera, Amaia Salegi, Maider Zubikarai, Eritz Loyola, Irati Rodriguez, Kike Sarasketa, Maddi Astigarraga, Oihana Esnaola, Arantxa Odriozola, Mikel Lafuente.

## MARTXOKO ERANTZUN ZUZENAK

1 > Kolorea eta goxotasuna    4 > Sasiola Dorrea

2 > Katajineta    5 > Urki eta Ziolar

3 > Okerkale Irratia    6 > Ramon Beitia



1 > Zein mailatan dago Iñaki Goikoetxeak zuzentzen duen Real Union futbol taldea?




2 > Zein da ezkerreko argazkian agertzen den hegaztia?

- a) Buztanikara zuria
- b) Mika
- d) Zapelaitza
- e) Garrapoa



3 > Zein ikerlari ospetsuk aurkitu zuen Ermitiako leizea 1924an?



4 > Zein da Kultur Elkarteko eraikina diseinatu zuen arkitektoaren izena?

- a) Enrique Epalza
- b) Manuel de Cardenas
- d) Justo Antonio Olagibel
- e) Francisco Ibero



5 > Zein da Huntzak agur esateko Bilboko Miribillan egingo duen emanaldiaren izena?



6 > Zein urtetan amaitu ziren Lasturko ur-kanalaren eraikitze-lanak?

- a) 1900
- b) 1917
- d) 1925
- e) 1934

## APIRILEKO BIRA

**Parte hartzeko:** [www.labur.eus/bira\\_apirila](http://www.labur.eus/bira_apirila)

**Erantzunak bidaltzeko azken eguna:** maiatzak 14

Irabazleen izenak datorren alean argitaratuko dira.

Animatu eta parte hartu!

## SARIAK

• Erantzun gehien asmatzen dituztenen artean **ekaineko merkatu txikian gastatzeko 30 euroko bost bono** banatuko dira.

• Parte hartzaile guztien artean **ekaineko merkatu txikian gastatzeko 15 euroko hamar bono** banatuko dira.

Informatika Tresneria informatikoa

Elektronika Osagai elektronikoa

**Informatika JLC Elektronika**  
Maxpe Kalea, 7 - behea | 20820 DEBA

Tel.: 943 19 17 83  
Faxa: 943 19 18 36  
Mugikorra: 686 939 601

[informatikajlc@informatikajlc.com](mailto:informatikajlc@informatikajlc.com)

943 19 22 63  
[atari@atarideba.com](mailto:atari@atarideba.com)  
[www.atarideba.com](http://www.atarideba.com)

ieraenea eskadenda  
"maite ditut nire/gure baserrak"

Lersundi Kalea 6- 20820 DEBA  
Telf: 943 53 95 20- E-mail: [ieraenea@gmail.com](mailto:ieraenea@gmail.com)

**LAMARIANO**  
Oinetakoak

Itur kalea 14 - Deba  
943 19 12 52

**Arteondo**  
Autobusak S.L.

[arteondo@arteondo.es](mailto:arteondo@arteondo.es) • 943 19 93 34

**SUKIA**  
Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 29  
Tel.: 943 192 386  
Deba (Gipuzkoa)

**Gilen  
Garcia  
Boyra**

Debako  
alkategaia

**ehbildu**

**Maite duzun  
Deba eta Itziar**

**EGINGO DUGU.**

## ERDI MAILA

- ▢ Mekanizazioa
- ▢ Mantentze-lan elektromekanikoa

## GOI MAILA

- ▢ Fabrikazio mekanikoko diseinua
- ▢ Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa
- ▢ Mekatronika industrialia

## ESPEZIALIZAZIOAK

- ▢ Fabrikazio aditiboa
- ▢ Errendimendu handiko mekanizazioa
- ▢ Makinen doitze eta prestakuntza aurreratua

**ATE IREKIAK**

Maiatzak 6

Maiatzak 17



**GORDE TOKIA!**



943 74 41 32

zikloak@imh.eus

www.imh.eus/zikloak



# hain·k

Ile-apaindegia txakurrak & katuak

**Aurretiko hitzordua:**

**688 647 852**

**MENDARO**

- Bainua, lehortzea, ilea moztea eta orraztea (makinarekin edota guraizeekin)
- Stripping teknika (bizar-xafla eta harria)
- Azaleko tratamenduak (alergiak, dermatitisa...)
- Uzki-guruinen garbiketa
- Entzumen-kanalen garbiketa
- Azazkalak moztea